

**LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2018/2019 ikasturtea**

**HAURREN IRUDIEZ HARATAGO IKUSTEN.  
ZERGATIK GALTZEN DA MARRAZTEKO ILUSIOA?**

**Egilea: Lydia Terrón Prieto**

**Zuzendaria: Naiara Herrera Ruiz De Eguino**

**Leioan, 2019ko maiatzaren 28an**

## AURKIBIDEA

Sarrera.....	3
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala .....	4
1.1. Marrazketaren garrantzia .....	4
1.1.1. Zergatik uzten diogu marrazteari?.....	6
1.2. Marrazketa irakaskuntza arloan .....	7
1.2.1. Ikastetxeetan marrazketari ematen zaion garrantzia.....	8
1.3. Marrazketaren sustapena bultzatzeko faktore nagusienak.....	11
2. Metodologia .....	14
3. Lanaren garapena .....	15
4. Emaitzak eta ondorioak.....	16
4.1. Emaitzak .....	16
4.2. Ondorioak .....	23
5. Erreferentzia bibliografikoak .....	26
ERANSKINAK .....	27
I. eranskina. Irakasleen inkesta .....	27
II. eranskina. Ikasleen inkesta .....	30
III. eranskina. Marrazki abstraktuen irudiak.....	33
IV. eranskina. Irakasleen inkesten grafikoak .....	34
V. eranskina. Ikasleen inkesten grafikoak .....	43

## **Haurren irudiez haratago ikusten**

### **Zergatik galtzen da marrazteko ilusioa?**

**Lydia Terrón Prieto**

UPV/EHU

Marrazkigintza gizakiok komunikatzeko erabiltzen dugun tresna baliotsu bat izanda ere, Lehen Hezkuntza garaitik jada horrekiko interesa galduz goaz. Ikerketa lan honetan, egoera horren zergatiak arakutzen dira eta marrazkigintza haurrak entretenitzeko ariketa bat baino gehiago dela erakusten da, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan duen garrantzia azpimarratuz. Horrela, zenbait autoreen teorietan oinarrituz gaiaren inguruko ikerketa sakon bat egin da, eta ikerketa zehatz eta aberasgarri bat bermatu ahal izateko inkesta kualitatiboak egin zaizkie Lehen Hezkuntzako irakasle eta ikasleei. “Marraztea gustatzen al zaizu” galdetuko balizute, zein izango zen zure erantzuna?

*Marrazkigintza, irakaskuntza, ikerketa kualitatiboa, ilusioa, motibazioa*

El dibujo constituye una valiosa herramienta de comunicación entre los seres humanos; sin embargo, el interés por el mismo merma tras la etapa de Educación Primaria. En la siguiente investigación se reflejan los motivos de esta situación, y se muestra que la función del dibujo no es únicamente el entretenimiento de los niños, recalcando la importancia del dibujo en el proceso de enseñanza-aprendizaje. De esta forma, se ha elaborado una investigación profunda de varios autores, y se han realizado encuestas de carácter cualitativo a profesores y alumnado de Educación Primaria. Si te preguntaran cuál es tu interés por el dibujo, ¿cuál sería tu respuesta?

*Dibujo, enseñanza, encuesta cualitativa, ilusión, motivación*

Drawing is a valuable tool for communication between human beings. However, drawing interest decreases at primary school. In the following investigation, we will arise the main reasons for this loss of interest, and we will demonstrate that drawing is not only aimed at entertaining children; we will particularly emphasize the importance of drawing in the teaching-learning process. In order to carry out a brief analysis based on the various researches performed by several authors, qualitative surveys have been done for both teachers and primary school pupils. If you were asked about your interest in drawing, what would you answer?

*Drawing, education, qualitative survey, excitement, motivation*

## Sarrera

Gradu Amaierako Lan honetan, Arteen eta Ikusizko Kulturaren Hezkuntza ikasgaiari garrantzia handia duen arlo bat jorratuko da, hots, marrazkigintza. Haur Hezkuntzako etapan garrantzia handia ematen zaio arlo honi, baina Lehen Hezkuntzan, gehienbat bigarren ziklotik aurrera, garrantzia hori galtzen doa. Howard Gardnerrek *Inteligencias múltiples* (1983) liburuan aipatzen duen moduan, hezkuntza sistema hizkuntza-inteligenzian eta inteligentzia logiko-matematikoan zentratzen da, gainontzeko inteligentziak bigarren plano batean uzten diren bitartean. Normalean, irakasle gehienek marrazkiak denbora pasatzeko erabiltzen dituzte, artea gutxietsiz. Modu horretan, haur eta heldu gehienek marrazteari uzten diote eta zer edo zer margozteko eskatzen bazaie “nik ez dakit marrazten” esan ohi dute.

Baina, noizbait galdetu diogu geure buruari benetan zer den marraztea? Normalean, marrazkiak alde batean uzten ditugunean ez gara ohartzen marrazkien atzean mundu bat dagoela, ez dugu irudiez haratago ikusten. Beraz, lan honekin marrazkigintzaren inguruan sakontzea eta irakaskuntzan, bereziki Lehen Hezkuntzan, ematen zaion garrantzia ikustea lortu nahi da. Horretarako, ikerketa teoriko sakon bat eramango da aurrera, zenbait autoreen hitzak kontuan hartuz. Marraztea benetan zer den, marrazteari zergatik uzten diogun, irakaskuntzan marrazketaren nondik norakoa zein den, marrazketa eta adierazpen plastikoen irakaskuntza joerak eta marrazketa sustatzeko faktore nagusiak zeintzuk diren izango dira arakatuko diren faktore nagusienak.

Atal teorikoan idatzitakoa kontuan izanda, eta teoria errealitatearekin kontrastatzeko nahiaz, ikerketarako teknikarik aberasgarrienetariko bat erabiliko da, inkesta kualitatiboa hain zuzen ere. Bi inkesta ezberdin sortu dira, bata Lehen Hezkuntzako tutoreei luzatzeko, eta bestea, aldiz, ikasleei banatzeko. Inkesten nondik norakoak “Lanaren garapena” atalean azalduko dira. Inkestetan jasotako informazioarekin, zenbait grafiko sortuko dira eta horiekin emaitzak eta ondorioak aterako dira.

## 1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

Gradu Amaierako Lanaren lehenengo atal honetan, zenbait egileen ideiak eta esperientzia esanguratsuenak erreferentzia bezala hartuta, gaia zehaztuko da. Lehenengo atalean marrazketaren garrantziaz mintzatzen da, eta atal honen barne marrazteari zergatik uzten diogun galderari erantzuna bilatzeko saiakera egingo da. Jarraian, irakaskuntza arloan marrazketa zelan lantzen den eta zer nolako garrantzia ematen zaion arakatuko da eta, azkenik, marrazketa sustatzeko faktore nagusien inguruko ikerketa egingo da.

### 1.1. Marrazketaren garrantzia

Historiaurretik, marrazketak paper garrantzitsu bat bete du gizateriaren komunikazio sistemen garapenean. Berez, marrazketa pertsonen lehenengo errepresentazio grafikoa da; ume garenean jada marrazten hasten gara, munduarekiko gure pentsamenduak, sentimenduak eta jakintzak komunikatzeko balio zaigu eta. Zentzu honetan, marrazketa lengoai bat dela esan genezake. Izan ere, haurra marrazten dagoenean bere buruarekin eta kanpoko munduarekin komunikatzen da. Modu honetan, hitzekin jakinarazi ezin duena, baliteke marrazkien bitartez aditzera ematea. Nolabait, barne eta kanpo munduak ulertzeko baina baita lotzeko ere aukera ematen du marrazketak. Errealitatea imitatzeke modu bat da, eta imitazio ariketa hori txikiak garenetik ematen da (Vargas, 2004).

Umeak, hasiera batean, orrialde batean edo beste euskarri batean mugimenduak egiten hasten dira eta marka bat uzten dute. Eskuaren mugimendua jarduera motorraren luzapen bat da: sigi-saga, ondulazioak, zirkuluak, etab. Ondoren, objektuak edota pertsonak imitatzen hasiko dira (Müller eta López, 2011). Berez, lerro soil horien bidez bada ere, Cormanek (1976, Maganto-tik hartuta, 1997: 14) adierazi zuen bezala, haur batek bere kasa egindako marrazkiak gauza asko erakusten dizkigu. Bere adimen maila eta errealitatea antzematen duen moduz gain, bere bizitza afektiboa erakusten digu bereziki. Honen harira, Elkischek (1966, Müller eta López-etik hartuta, 2011: 23) hurrengo definitzen du: “umeen marrazkietan ez dira soilik aspektu ebolutiboak behatzen, baizik eta euren pertsonalitatearen egiturak eta baita euren buruarekiko eta ingurunearekiko dituzten gatazkak ere”. Horri dagokionez, Garcíak (2003: 71) adierazten duen bezala, “umearen sinbolizazio grafikoari buruz hitz egiten denean, irudien sorkuntzaz hitz egiten da. Irudi

horiek umeen sentimenduak eta barneko bizipenak erlazionatzen dituzte, gizakiaren kulturagatik eragina jasaten ari direnak”.

Marraztea bereganatze eta proiektzio prozesu etengabea da. Zentzuen bidez informazio handia jasotzea ahalbideratzen du, norbera bere “ni”-an barneratuz bere beharrei forma berria emateko helburuarekin. Marrazketak, gainera, material desberdinak erabiltzea eragiten du barne eta kanpo esperientzia guztiei irteera emateko, haurren adierazpen eta behar ludikoak asetuz honela (Maganto, 1997). Beraz, marrazketaren bitartez adieraztea ez da soilik entretenimendu bat, askotan ulertu izan den moduan, baizik eta haurrak berorren buruaren eta bere inguruaren ulermenerako bidearen eraiketan oso garrantzitsua den ekintza bat. Hammer-ek (1978, Magantotik hartuta, 1997: 86) esaten duen bezala, haurrarentzat marrazketak bere beldurrak, itxaropenak eta fantasiak adierazteko bidea osatzen du. Marrazketa haurrarentzat garrantzitsua dena eta kezkatzen duena komunikatzeko bidea litzateke.

Sormena, sentsibilitatea, auto-estimua, imajinazioa, enpatia, jolas sinbolikoa eta motrizitatea dira ikasleek adierazpen artistikoan garatzen dituzten jarrera eta portaerak, beste batzuen artean. Guzti honekin, umeak egin nahi duena transmititu eta haren sentimenduak irudikatzea lortzen da; hau da, marrazketa oso bitartekari eraginkorra da ikaslearen adierazpena jario dadin, baita trebetasun eta kualitate ezberdinak zenbait aspektuetan gara ditzan ere (Sirera, 2014). Hortaz gain, alor ludikoarekin loturik ere badago, eta horrek haurraren marrazketarako desioa areagotzen duela esan daiteke. Müllerrek eta Lópezek (2011: 15) adierazi duten bezala, “marraztea atsegina da umeentzako eta sentsazio hori jolastearekin duten sentsazioarekin lotzen da. Bi ekintzak, marraztea eta jolastea, pozgarriak dira txikientzako”.

Horrez gain, Albanok eta Pricek (2014) aipatzen duten moduan, artearen sorkuntza ikusmenaren garapenarekin lotuta dago, eta ukimenarekin ere eutsi egiten da: gogokoen platera eskuekin garbitzea, makil batekin harea zirriborratzea, bizikletaz putzu batean sartzea gurpilaren oinatzak ikusteko... Hauek denak marrazketarekin erlazionatuta dauden ekintzak direla kontsidera daiteke. Umeek, marrazketaren bitartez istorioak garatzen hasten direnean, plazer berezi bat aurkitzen dute. Izan ere, esperientzia garrantzitsuak oroitzearen eta islatzearen beharra sentitzen dute. Konpetentzia hau idazketa baino lehen garatzen dute eta, euren marrazkiak azaltzerakoan, umeek irudi finkoei bizitza ematen diete.

### 1.1.1. Zergatik uzten diogu marrazteari?

Orain arte esandakoak kontuan hartuta, ondoriozta daiteke marrazketa pertsonen garapenean eta adierazpen mailan lagungarria dela, eta beraz bizitza osoan zehar mantendu beharko zela gure marrazteko grina. Ordea, pertsona askok marrazteari uzten diote. Eta jarraian ikusiko den moduan, marrazketa albo batera uzteko garaia ez da zertan heldutasunean eman behar. Aitzitik, haurtzaroan jada gure marrazteko irrika itzaltzen doa.

Haurren esperientzia plastikoak curriculumetan toki bat betetzen du, baina gero errealitatean ez da bere presentzia ikusten. Aitzitik, gehienetan marrazkigintza curriculumeko funtsik gabeko ekimen bat besterik ez da izaten; haurraren plazererako edo sarirako eskaintzen den “presiorik” gabeko ekimen bat edo azkar bukatzen dutenen aisialdiak betetzeko irtenbide bat. Didaktikako bide hauek jorratuz, haurrak 9-10 urte inguru dituen adierazpen grafikoaren punturik gorena lortuko du eta Lehen Hezkuntza amaitzean dagoenean, haurra erabat kezkatu egongo da bere marrazteko trebetasun ezarekin. Ez ditu gustuko izango bere marrazkiak eta, askoz ere kezkarriago dena, ez du bere burua marrazketarako gai sentituko eta bere bizitzan zehar ez du izpirik ere aurreratuko bere gaitasun eza honetan, irakaskuntza espezializatua jasotzen ez badu (Aguirre, 1997).

Hau dela eta, helduek oso trantze txarrak pasa behar izaten dituzte edozer marraztu behar dutenean eta beti irtenbide salbatzaile berdinari heltzen diote: “Ni ez naiz honetarako jai! Ni marrazkigintzan oso txarra naiz!”. Baina adin grafikoa eta adin mentalaren alde areagotzen hasten dela sentitzen duen hamar urteko haurraren zein haurtzaroan kateaturik gelditu zela sentitzen duen helduaren frustrazioek badute konponbiderik. Hori bai, bidea bakarra da: marrazkigintzarako eta orokorrean arte adierazpenerako dauden jarrerak eta aurreiritziak erabat aldatu egin beharko liriteke. Marrazketa erakutsi daitekeen zerbait delaren kontzientzia eta ardura guztien gain hartu beharra dago arazo honi irtenbidea emateko, curriculumetan bete behar duen lekua eskainiz (Aguirre, 1997).

Aguirrek adierazten duen moduan,

Oso hedatua dagoen jarrera batek dio haurrari marrazten erakusteak bere autoadierazpen naturala oztopatzea eta hiltzea dela; nolabait ere, haurren marrazkien aberastasuna autoadierazpen “naturalaren” ondorio zuzentzat hartuz. Eta hementxe dago akatsa, ez

baikara konturatzen haurren benetako askatasun plastikoa, teknikaren menerapenak eta ugaritasun estetikoaren erabilpenak ematen dien behaketaren zorrotasunarekin erabat lotuta dihoala; beraien sormen emankorra marrazkigintzaren bitartez gauzatzeko zenbait trebetasunen beharra dutela. (Aguirre, 1997: 13)

Idazketa eta mintzamina bezala, gaitasun artistikoa errepikapenaren bitartez garatzen da. Portaerak edota jokabideak errepikatzearen aukerarik gabe, konpetentzia hauek bere osotasunean garatzea oso zaila da. Modu honetan, helduek azkenean irudiak sortzeko gai ez direla uste dute, artistak ez direlako. Albanok eta Price-ek (2014) dioten moduan, idazlan bat idazterakoan, helduek ez dute hau esateko beharra: “Baina ni ez naiz idazlea!”. Hala ere, euren irudiak edota marrazkiak sortzeko gaitasuna ukatu egiten dute.

## 1.2. Marrazketa irakaskuntza arloan

Ikasleak pentsamendu kritikoa izatea nahi bada, ezinbestekoa izango litzateke eskoletan sormenaren eta irudimenaren garapena sustatzea, eta ez genieke ikasleei hau mugatu beharko, helduak direnean erabakiak kritikoki har ditzaten. Buru irekiak eraikitzea hezkuntzak jarraitu behar duen bidearen helburua izan behar da (Sirera, 2014), eta marrazketa horretarako bide ezin hobea dela esan daiteke.

Hezkuntza goiztiarrean, artearen erabileraren bitartez oso probabilitate handia dago umearen kuriositatea bereganatzeko, arteak ikuspegi zabala eskaintzen duelako eta umearen bizitzaren aspektu guztiak barne har ditzakeelako. Umeak jakin-minik ez balu, oso zaila izango litzateke ikaskuntza esanguratsu bat lortzea. Izan ere, honek umea ikaskuntzan parte hartzea ahalbidetuko luke (Albano eta Price, 2014). “Arteak esna gaitzake, piztu, inspiratu, suspertu eta desafiatu; hunki gaitzake, pentsamenduak sorrarazi eta besteengandik eraikitzen ikastera bultzatu” (Clouder, 2014: 34).

Ikastetxeetako errealitatean ordea, lehen aipatu bezala, marrazketari eta orokorrean arteari ematen zaion denbora eta garrantzia ez ohi da oso esanguratsua izaten. Egoera honen jatorriak ezberdinak dira, jarraian ikusiko den moduan.



### 1.2.1. Ikastetxeetan marrazketari ematen zaion garrantzia

Irakasle askoren ustetan haurren trebetasun grafikoak bi talde nagusitan sailkatu daitezke: onak eta txarrak. Gaitasun hauek ahalmen natural baten ondorio hutsak izango balira bezala edo norberak jaiotzetik aldaezina duen trebetasun bat izango balitz bezala. Hau dela eta, haurrak marrazkigintzarako gaitasuna erakusten badu onartua ikusiko du bere trebetasun hori, baina, zer egiten dugu horrelako ahalmenik erakusten ez duen haurrarekin? Normalean ez da ezer egiten eta haurrak ez du gaitasun hori garatzen. Justu beste edozein arlotan gertatzen den aurkako jarrera da honako hau. Izan ere, irakurketan, idazketan edo aritmetika arloan berehala saiatzeko gara irakaskuntza prozesuan sortzen diren arazoei konponbidea bilatzen (Aguirre, 1997).

Hortaz gain, eta lehen aipatu den bezala, marrazketa eskoletan presente jarraitzen du ariketa huts eta libre modura. Baina, ba al du marrazki libre edo espontaneoak lekurik Arte Hezkuntzan? Zein paper edo funtzio bete beharko luke marrazki librearen Arte Hezkuntzako didaktikaren sistematizazio baten barnean? Gardnerren adimen anitzaren teoriaren arabera, inteligentziak dimentsio asko ditu. Haren ustez, pertsona bakoitzak inteligentzia maila desberdina dauka: norbanakoaren barne inteligentziak eta pertsonen arteko harremanetarako inteligentziak osatzen dute inteligentzia emozionala; honekin batera, adimen linguistikoa, adimen logiko-matematikoa, adimen musikala, adimen espaziala eta adimen korporal-zinestesikoa deskribatu zituen eta geroago adimen naturalista gehitu zuen. Adimen Anitzen ikuspegia onartuz gero, hezkuntzaren eremuan garrantzizko aldaketak eman beharko lirateke. Hau da, ikuskera honek hezkuntza ulertzeko ikuspegi ezberdina eskatzen du, eskola eredu berri bat alegia. Guerrero-k (2006) dioen bezala, egungo hezkuntza programak aztertzen baditugu, gure hezkuntza sisteman adimen logiko matematikoa eta hizkuntza adierazpen gaitasunak ia oinarritzko bakartzat onartzen direla konturatuko gara, beste adimen motak alde batera utziz.

Albanok eta Pricek (2014) baieztatzen duten moduan, hezkuntzaren ordutegia aztertzen badugu, erraztasun handiz ikus daiteke pentsamendu logikoan eta objektibotasunean zentratzen diren diziplinek betetzen dutela denbora gehiena. Afektibotasuna, esperientzia subjektiboa eta hezkuntza emozionala, aldiz, bigarren plano batean geratzen dira. Hezkuntza prozesu osoan zehar adierazpen plastikoari eskaintzen zaion ordu kopuru totala gehitzen badugu, ikusiko litzateke ikastetxeek arteari ematen dioten garrantzia oso handia

ez dela. Eisnerrek (2002, Albano eta Price-tik hartuta, 2014: 95) adierazten duen moduan, “arteak curriculumean hartzen duen tokia gazteei erakusten die helduek garrantzitsutzat jotzen dutena”.

Artista, irakasle eta zaintzaile bezala ez gara ohartzen ikaskuntzak duen garrantziaz bizitzako lehenengo urteetan, ezta honen garrantzia artearen trebetasunaren eta malgutasun kognitiboaren garapenean. Nahiz eta haurtzaroan egiten diren obrak miretsi, mundu osoko hozkailuak adornatzeko zirriborroak, ez dugu, aldi berean, giza garapenerako duen adierazgarritasuna ikertzen. (Burton, 2013, Albano eta Price-tik hartuta, 2014: 96)

Marrazketaren praktika libreak esperimentazio eta ikerketa plastikorako eremu preziatu bat eskaini beharko luke. Haur Hezkuntza garaian gertatzen den bezala, hementxe dauka haurrak bere saiakerak egiteko aukera, bai prozedura edo teknika arloetan, bai adierazpenerako baliabideak bilatzeko nahian. Norabide zehatzik gabeko esperimentazio honek norberak ezohiko kodean aritzeko aukera paregabea eskainiko luke, benetako autoadierazpenari bideak irekiz (Aguirre, 1997).

Hezkuntza, jendeak bere burua ezagutzeko lagungarria izan beharko luke, baita bakoitzaren gaitasunak garatzeko ere. Umeek sentitzen dutena aditzera ematea baimendu beharko luke. Horren harira, arte adierazpenaren garrantzia dugu. Izan ere, bide ezberdin bat da ikasleek euren sentimenduak adierazteko eta mundua modu ezberdin eta hunkigarri batean ikusi ahal izateko. Arte adierazpenak prozesu sortzaile bat suposatzen du, motrizitatearen, afektibitatearen eta ezagutzaren garapenean laguntzen duena, beste gauza batzuen artean. Beraz, oso balio garrantzitsua du hezkuntza arloan eta merezi duen garrantzia eman ez zaiola da arazo nagusia (Sirera, 2014). Modu honetan, arte adierazpenari eskaintzen diogun denbora geure buruari eskaintzen diogun denbora da. Hots, gure pentsamenduari eta emozioari forma emateko denbora (Albano eta Price, 2014).

### **1.2.2. Marrazketa eta adierazpen plastikoen irakaskuntza joerak**

Irakasleak, Arte Hezkuntzako metodologia bat edo bestea erabiltzea eta hori aurrera eramateko duen moduak haurrak marrazketarekiko duen ikuspegia eta jarrera guztiz baldintzatu ditzake. Hori dela eta, historian zehar jarraitu izan diren ereduaren aurrean, azken hamarkadetan ikuspegi berriak sortu dira. Jarraian, eredu tradizionalak zeintzuk izan diren arakatuko dugu eta Aguirrek (2006) proposatzen duen ikuspegi berri bat ikusiko dugu.

Aguirrek (2006) artearen hezkuntzan tradizionalki landu izan diren hiru eredu ezberdintzen ditu: logozentrizta, espresionista eta filolinguista. Eredu logozentrizta objektu artistikoaren emaitzan eta ikasleen instrukzioan zentratzen da. Honen arabera, artelan on bat printzipio eta norma unibertsalei egokituta egon behar da. Modu honetan, artea ideal estetiko batean oinarritzen da eta, arte hezkuntza, ideal horren imitazioan. Beraz, modelo honetan kokatutako irakasleek ikasleak produktu estetiko bat lortzeko heziko dituzte heziko dituzte eta erabili den teknika ebaluatuko da. Irakaslearen rola jakintsuarena da eta erabiltzen den metodologia prozesuarekiko eta arauetikiko fideltasun estua mantentzen du, adibidez, eskulanetan oinarritua. Nahiz eta modelo hau hezkuntza orokorrean jaio, oso presente egon da eskoletan orain dela gutxi arte. Gaur egun, esan dezakegu ia desagertu egin dela irakaskuntza arloan.

Eredu espresionista ikasle sortzailean eta artearen adierazpenean zentratzen da. Horrela, subjektibitatearen eta emozioen adierazpenean zentratuko da artelana. Praktika artistikoa emozio eta sentimenduen adierazpenen bide izango da, arte ekintza subjektiboa izanda. Horrela, eredu honetan oinarritutako irakasleek eskulan pertsonalak eskatuko dituzte, gidari rola hartuz. Haurren lanetan, unibertsaltasunetik aldenduz aniztasuna bilatuko da. Ikasle bakoitzak bere produktua ekoiztuko du, bere berezko gaitasunak aplikatuz. Aguirreren esanetan (2006: 6), “Modelo hau bereizgarria da ez duelako programa zehatzik eta irakasleen formazioari ematen zaion atentzio urriagatik”. Aurreko ereduak ez bezala, eredu espresionistak indarra izaten jarraitzen du hezkuntza orokorrean eta hezkuntza artistiko informalaaren praktika askotan.

Hirugarrenik, eredu filolinguistikak objektu artistikoari begirada bueltatzen dio. Komunikazioak eta narratibitateak indarra hartzen dute, eta Arte Hezkuntza hizkuntzaren metafora bat izango da. Ikasleen alfabetizazio bisuala bilatzen da, ikasleek gaitasunen garapena sustatuz. Modelo honetatik abiatuz, Arte Hezkuntza diziplinartekotasunera zabaltzen da, baliabide desberdinak erabiliz. Irudiak maila formaletik haratago ulertu behar dira. Eredu hau Arte Ederretako hainbat fakultateetan preziatu dezakegu. Horrez gain, Europako hezkuntza eremuan bere eragina ere ikus daiteke, eredu espresionistaren alternatiba bezala. Modu honetan, herri garatuenetan komunikazio bisualaren produktuak curriculumean sartu dituzte.

Aipatutako hiru eredu hauen bitartez arte hezkuntzak eskaini dezakeen potentziala ez da nabarmentzen. Are gutxiago gaur egungo testuinguruari begira. Hori dela eta, hiru eredu horiek aurkeztu ostean Aguirrek ikusizko kultura kontuan hartzearen beharra azpimarratzen du eta artearen hezkuntza lantzeko ikuspegi berri bat proposatzen du. Kasu honetan, esan bezala ikusizko kultura da ardatz nagusia. Artea kulturaren zati bat osatzen duela defendatzen du Aguirrek, eta irudiak balore kulturalaren oinarria direla. Ikuspegi honek gizaki baten ezaugarri sozial, kultural eta historikoen arabera errealitateari buruz pertsonak eraikitzen dituzten irudikapenak aztertzea du helburu. Ikasleak ikusizko kultura osatzen duten objektuak eta fenomenoak interpretatzeko estrategiak ikastea du helburu, ikus kulturaren ulermena bultzatzeko. Metodologia lan proiektuetan oinarritzen da, arte kontzeptu zabala eta plurala sustatuz. Eredu honek orientazio tradizionaletan aldaketa erradikala suposatzen du arte hezkuntzarako. Hernándezek (2000) aipatzen duen moduan, eredu honek hurrengo aldaketak ekarriko lituzke:

- Irudietan ikusten duguna baino gehiago dagoela kontuan izatea.
- Irudiek munduarekiko eta gurekiko ikuskeran lagundu ditzaketela ohartzea.
- Irudiek ezberdintasuneko eta botereko gaiak adierazi ditzaketela: arrazismoa, ezberdintasun sozialak, sexualak, etab.
- Identitatearekin eta arazo sozialekin erlazionatutako kontakizun bisualak eraikitzea.
- Ikaskuntza indibiduala eraikuntza kolektiboarekin ordezkatzeta.

Irakaslea, Arte Hezkuntza bezala ulertzen duenaren arabera metodologia batean edo bestean oinarrituko da, bere burua paradigma batean kokatuz; bere jarrera hartzearen arabera bere hezkuntzarekiko ikuspegia moldatuko da (Aguirre, 2006), horrek ere hurrek marrazketarekiko duten harremana baldintzatuko duelarik.

### **1.3. Marrazketaren sustapena bultzatzeko faktore nagusienak**

Arte hezkuntza, diziplina edo ezagutzaren esparru bezala, aldatzen joan da baina irakasleriaren formakuntzarekin ez da berdin gertatzen. Hori dela eta, ohitura berriak heltzen joaten dira eta iraskasleek ez dakite zein bide jarraitu, ez dutelako tradizioz ezta formakuntza artistiko nahikorik. Esparru honetan irakasleriaren formakuntza oso urria den heinean, formakuntza hau bultzatzea ezinbestekoa izango litzateke. Honek, artearen irakaskuntzaren ordu kantitatea handitzeaz aparte, irakasleen formakuntzaren kalitatea

handitzea ekarriko luke. Xedea ez da arteekin lan egitea artea irakasteko, baizik eta arteak erabiltzea giza-esperientzia bezala (Aguirre, 2016).

Marrazketaren sustapena bultzatzeko faktoreen inguruan hitz egiterakoan, testuingurua kontuan hartzea eta zaintzea ezinbestekoa litzateke: ikasgelako giroa, tresnen eta materialen aukera, erreferentzia plastikoak, kultura maila, ikasleen arteko kezka nagusiak, etab. Gure eginbearra, azken finean, komunikazio ahalmen plastikoak garatzen laguntzea izango da, haurrak bere buruarengan ahalik eta konfiantza handiena izan dezan (Preciado, 1997).

Testuinguruko ezaugarriak zaintzeaz gain, baliabideak ere oso garrantzitsuak dira. Albanok eta Pricek (2014) adierazten duten moduan, artearen prozesuan egiten dugun lehenengo ekintza irudiak sortzea eta adieraztea da; lerroen, koloreen eta formen bitartez modu espontaneo batean teknika bat ekoizten da, argizaria edo pintura bezala. Umeek, artearen ingurune aberats batean murgilduta daudela ikusita, euren trebetasunen maila handitzen dute, baita euren sentsibilitatea arteen konposizioekiko ere. Testuinguru honetan, testuren kontrastea kontuan hartu beharko litzateke, adibidez umeen laguntzaz bildutako forma natural organikoen bitartez. Horrez gain, ikasleei ikusmenerako eta ukimenerako erakargarriak izango zaizkien material ezberdinak aurkeztea ezinbestekoa izango litzateke. Batzuetan, helduek eranskailuak eta txantiloak ematen dizkiete, baina ez dira ohartzen horrek umearen erantzuna mugatu egiten duela. Gure xedea umeen jakin-minaz baliatzea eta euren istorioa edota bizitza kontatzeko formak aurkitzeko tresnak ematea izan beharko litzateke. “Ume guztientzako marrazketa izugarri garrantzitsua da, baina umeen garapena marrazketa egiten ari den ingurune kulturaletikiko baldintzatuta egongo da, eta marrazketa gauzatzeko materialak eta pizgarriak beharrezkoak dira” (Müller eta López, 2011: 16).

Aurreko autoreek plazaratutako ideiez gain, bereziki Lehen Hezkuntzako ikasleekin kontuan izan beharreko beste estrategia esanguratsu ezberdinak aurkeztuko dira jarraian, zeinak marrazketaren prozesuan lagungarriak izango zaizkie (Mujica, 2012).

Alde batetik, marrazten hasi baino lehen, haurra prestatzea eta garbiketako ohiturak zein arlo honetan beharrezkoak diren bestelako jokaerak erakustea ezinbestekoa izango litzateke. Arestian aipatu den bezala, haurra erosotasunez marraztu ahal izateko espazioa egokitu behar da, leku eroso bat bilakatuz, eta argiztapena kontuan hartu behar da (argi beltza, argi zuria, argi laranja, argi naturala...). Hortaz gain, askotariko materialez edota

baliabidez hornitu behar da; esate baterako, marrazteko arkatzak, mota ezberdinetako margoak, tamaina ezberdinetako pintzelak, marrazketa teknikak lantzeko euskarri ezberdinak, etab. Horrez gain, Mujicak (2012) adierazten duen moduan, artean irakaskuntza esanguratsua lortzeko irakaslearen frogapena beharrezkoa da (berak nola egingo zukeen azaltzea), baina ikaslearen adierazteko momentua heltzean, aske utzi behar zaio.

Beste alde batetik, liburuetatik edo bestelako baliabideetatik hartutako ereduak ikasleari kopiatzeko ematea ez da aukera egokiena. Izan ere, irudi hauek haurrek oinarri bat lortzeko diseinatuta daude, baina hala ere, hauen nortasunean kontrako ondorio bat sortzen dute, hurrengo arrazoiengatik: haurraren sormen naturala mugatu egiten dute, aldez aurretik pentsatutako patroietan giltzaperatzen baitituzte, eta marrazteko pasibotasuna edota ekimen falta suspertzen dute, haurra dena eginda emateaz ohitzen baita. Hau dena kontuan izanda, ikasleak estimulatzeko asmoz, hobe da ikasleei amets egiteko aukera ematen dituzten ipuinak edota istorioak irakurtzea. Azken finean, diseinurik onena haurrak berak egindakoa da (Mujica, 2012).

Azkenik, ikasleek egindako marrazki guztiekin esposizio bat egitea gomendagarria izango litzateke. Modu honetan, ikasleek egindako lanaz harro sentituko dira, beste pertsonekin haien lana partekatzeko aukera izateak besteekiko loturak sortuko ditu eta haien lanarekiko nolabaiteko distantzia lortzeko gaitasuna ere lortuko dute. Hervásen (2007, Mujica-tik hartuta, 2012: 161) hitzetan, “erakusketak egitea denbora batean zehar egindako lana islatzeko aukera bat da, gozamina eta sortzeko esfortzua baloratzea baimentzen diguna”.

## 2. Metodologia

Gradu Amaierako Lan hau ikerketa kualitatiboan oinarrituko da. Ikerketek nagusitasun osoa izan dute Bigarren Mundu Gudatik gaur eguneraino. Izan ere, ikerlari askorentzat balioko ikerketa bakarrak dira kontaketa onartzen dutenak eta laginketa errorea eta fidagarritasuna neurtzea ahalbidetzen dutenak. Zentzu honetan, inkesta da askorentzat ikerketarako teknikarik zehatzena eta baliagarriena (Juaristi, 2003). Besteak beste, inkestaren aldekoek honako abantaila hauek azpimarratzen dituzte Juaristiren (2003) esanetan: lehenik eta behin, informazio iturri aberatsa da. Horrez gain, teknika oso egokia da, erraz zenbatu daitezkeen fenomenoak aztertzeko. Inkestaren bitartez iritzi publikoa zein gizartearen jarrera eta balioak oso erraz ezagutu daitezke. Gainera, lortutako datuen balioa eta erabili den galdeketaren fidagarritasuna beste teknika batzuetan baino errazago ezagutu daitezke.

Inkesta bat egiteko, ikerketaren helburuak zehaztu direnean aldagaiak operazionalizatu behar ditugu, galdeketa diseinatu, datuen azterketa egin, emaitzak interpretatu, txostena idatzi eta emaitzen balioa eta inkestaren fidagarritasun frogatu. Horrez gain, inkestaren prestakuntzarako bidean, galderen edukia kontuan hartu beharreko oso faktore garrantzitsua da. Galderak gure helburuak, dauzkagun hipotesiak eta gaiari buruzko teoriak kontuan hartuz prestatu behar dira. Oro har, galdeketek galdera zehatzak eta galdera orokorrak edo identifikazio galderak izaten dituzte. Galdeketa luzeegiak ekiditeko, oso argi zehaztu behar da zeintzuk diren ikertu nahi diren aldagaiak eta gaiak, eta galderak horien arabera prestatu behar dira (Juaristi, 2003).

Juaristik (2003) dioen bezala, behin galdeketa osatuko duten galderak zeintzuk diren erabaki denean, paperean nola jarriko ditugun zehaztu behar dugu. Oso ondo pentsatu behar da galdeketaren formatua. Modu honetan, inkestatuentzat erakargarriak izango diren eta inkestatzaileek erraz jarraituko dituzten galdeketak egin behar dira.

Lan honetan azaldu berri diren ideia hauek jarraitu dira. Aurretik esan bezala, bi inkesta ezberdin diseinatu dira, bata ikasleei zuzendua eta bestea ordea, irakasleei egina. Behin inkesta biak diseinatuta eduki, zentroko koordinatzailearekin kontaktuan jartzea ezinbestekoa izan da, inkestak luzatzeko baimena jasotzeko asmoz. Galdeketak jaso ondoren, bakoitzaren informazioa aztertu da banan-banan emaitzak eta ondorioak atera ahal izateko.

### 3. Lanaren garapena

Hirugarren puntu honetan, egindako inkesten eta bizi izandako esperientziaren inguruan hitz egingo da; baina komenigarria da, aldez aurretik, ikastetxearen zenbait ezaugarri aipatzea, bertan aurrera eraman den lanaren garapenari zentzua eman ahal izateko.

Inkestak Bilboko ikastola batean egin dira. Hiriko ikastetxe gehienek bezala, ez dauka inolako kontakturik naturarekin. 1973. urtean sortu zen eta bere sorreratik ikastola aldatuz joan da. Horrela, ikastola hartzen duen eraikina beharrianetara egokitu zen, hegal berri bat gehituz (gaur egun Hhko eremua dena) eta jolastokia moldatuz, eta hezkuntza eskaintza zabaldu zen; 0-18 urte bitarteko hezkuntza euskalduna eskaintzen da gaur egun.

Ikerketa lan bat den heinean, jarraian, Lehen Hezkuntzako irakasle zein ikasleei luzatutako inkesten nondik norakoak azalduko dira. Inkesta biak kualitatiboak dira eta nahiz eta galdera batzuk komunean izan, euren artean ezberdinak dira (I. eta II. eranskinetara jo). Inkestetan ikus daitekeen moduan, marrazkigintzaren inguruko galderak luzatzen dira, batzuk zehatzak eta beste batzuk, aldiz, orokorragoak. Hala ere, galdera konkretu guztietan erantzuna justifikatzeko eskatu zaie bai irakasleei bai ikasleei. Galdera askotan aukera ezberdinak ematen zaizkie, eta bat baino gehiago hautatzeko abagunea izan dute. Irakasleen inkestari dagokionez, hauek modu anonimoan erantzuteko aukera izan dute, betiere sexua eta maila adieraziz. Guztira, hamahiru irakaslek (tutoreak) bete dute inkesta. Izan ere, ikastola honetan ikasleak zikloka banatuta daude; ziklo bakoitzean bi maila aurkitzen dira eta maila bakoitzeko bi gela. Lehenengo zikloa, 1. mailan hiru gela dituen ziklo bakarra da. Modu honetan, gela bakoitzeko tutoreei inkesta luzatu zaie, hots, hamahiru tutoreei.

Ikasleen inkestari dagokionez, bakoitzari izen-abizenak eta maila jartzeko eskatu zaio. Lehen Hezkuntzako ikasle guztiei inkesta banatzea gehiegi izango zenez, maila bakoitzeko gela bati luzatzea erabaki da (guztira sei gela), gela bakoitzean 26-27 ikasle daudelarik.

Ikasleen inkestan ere, aukera ezberdinak izan dituzte, bat baino gehiago aukeratzeko abagunea izanik. Jakin badakigu, 1. mailako ikasleek inkesta egoki irakurtzeko eta osatzeko arazoak izan ditzaketela. Hortaz, ikasle hauekin metodologia ezberdin bat eraman da aurrera, hurrengo lerroetan azalduko dena.



1. mailako ikasle bakoitzak, inkesta orria izateaz gain, hau arbel digitalean ere eskura izan du. Hortaz gain, galderak ahoz egin dira, denek batera egiteko aukera izateko. Galderak banan-banan irakurri ostean, bakoitzak bere erantzuna aukeratu du inkesta orrian. Galdera batzuetan, “bai”, “ez” edo “batzuetan” aukerak dituztenetan, modu kuantitatibo batean galdetu dira: “nori gustatzen zaio marraztea?” galdera erantzuteko adibidez, ikasleek eskua altxatu beharrean, margoak erabili dituzte. Margo berdea “bai” erantzunari dagokio, margo gorria “ez” erantzunari, eta margo horia “batzuetan” aukerari. Bitartean, segun eta zein izan den ikasle bakoitzak hautatutako margoa, erantzuna inkesta orrian islatzen joan da. Modu honetan egiteak, margo gorria hautatzen zutenei zergatia galdetzeko aukera eman du. Horrela, bakoitzaren azalpena orri zuri batean adierazi da. Beste galdera batzuetan ezin izan dira margoak erabili, baina hauek ahoz irakurri dira eta eskua altxatuz bakoitzak hautatutako erantzunaren azalpena eman du. Azken finean, eurentzako oraindik zaila izaten da pentsatzen dutena islatzea, eta ezinbestekoa da gutxienez ahoz azaltzea nik orri batean adierazi ahal izateko. Batez ere justifikazio bat behar duten galderetan. Horrez gain, zer marrazten duten adierazi behar duten galderan, aukeretako bat “marrazki abstraktuak” da, eta hauek zer diren jakin ahal izateko, aurretik marrazki abstraktuen irudi batzuk erakutsi zaizkie (ikus III. eranskina).

#### **4. Emaitzak eta ondorioak**

##### **4.1. Emaitzak**

Irakasleen eta ikasleen inkestak jaso ondoren, emaitzak atera ahal izateko zenbait grafiko sortu dira (ikus IV. eta V. eranskinak). Grafikoetan ikus daitekeen moduan, badira galdera batzuk agertzen ez direnak, hauek oso orokorrak baitira. Hurrengo lerroetan, irakasleen eta ikasleen inkestetatik ateratako emaitzak azalduko dira.

Irakasleen inkestetan zentratuz, marrazketaren inguruan zer nolako iritzia duten galdetzerakoan, gehienek ikasleek sentimenduak azaleratzeko ezinbesteko ariketa dela azpimarratu dute, baita denbora pasatzeko aukera ona badela ere. Ez du inork adierazi funtsik gabeko ariketa bat dela. Bigarren galderan, ea marraztea gustatzen al zaien erantzun behar izan dute. Gehiengoak ezetz edo batzuetan adierazi du eta gutxi batzuek baiezkoa eman dute. Ezetz edo batzuetan jarri dutenek arrazoitzeko eskatzen zaien atalean,

gehiengoek marrazten ez dakitelako eta marrazteko denborarik ez dutelako aipatu dute. Batek, bere marrazkiak ez zaizkiolako gustatzen eta beste batek motibazio faltagatik izan dela aipatu du. Irakasle batzuek bi galdera hauek gehiago sakondu dituzte (ikus IV. eranskina). Hirugarren galderan, zein adinarekin, non eta norekin hasi ziren marrazten galdetu zaie. Oso erantzun ezberdinak egon dira, batzuk eskolan (Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan) hasi ziren, irakaslearekin, eta beste batzuk, aldiz, etxean gurasoekin. Adinari dagokionez, gehiengoak 3-5 urterekin marrazten hasi zela aipatu du eta bik 9-10 urterekin marrazketa tailerrera joan zirela adierazi dute.

Laugarren galderan, Otik 10era marrazketari zenbateko garrantzia ematen dioten adierazi behar izan dute. Ia gehienek 7-8ko puntuazioa eman dute, gutxi batzuek 9-10koa eta soilik irakasle batek 3ko puntuazioa eman du. Azkeneko irakasle honek hurrengo adierazi du bere puntuazioa arrazoitzeko: “beste gauza batzuei ematen diet lehentasuna. Gaur egun badago beste baliabide batzuk sentimenduak adierazteko”. Puntuazio altua eman duten irakasle batzuen hitzak hurrengoak izan dira: “arlotan asko lantzen direlako: trebetasuna, irudimena, menpekotasuna bestearekiko, sentimenduak”; “ordu gutxi dedikatzen zaizkio. Umeen ordutegian ordu bat baino ez eta ez marrazketari bakarrik, plastika ikasgaiari”; “gauzak adierazteko bide bat delako, baita ikasketetan gauzak birgogoratzeko”; “laguntzen didalako nire ideiak eta ametsak egi bihurtzen” (gainontzeko irakasleen hitzak ikusteko IV. eranskinera jo).

Hurrengo galderan, hots, bosgarrenean, marrazketaren inguruan, bizitzan zehar deserosoa edo desmotibatzailea izan den momenturen bat bizi al duten erantzutean, erdiak baino gehiago baietza eman du (ikus IV. eranskinean irakasle batzuen bizipenak). Seigarren galderan, txikiak zirenean marrazketari zer nolako garrantzia ematen zitzaion, nola irakasten zen eta zein eduki lantzen ziren aipatu behar izan dute. Gehiengoek oso gutxi eta era nahiko gidatuan lantzen zutela esan dute; “nire garaian ez zen baloratzen. Lenguaiak, matematika, natura, gizarteak, erlijioa noski, ziren balio gehiago zutenak. Sormenari leku gutxi uzten zitzaion”; “irakasleak emandako eredia kopiatu behar izaten genuen” (lantzen ziren edukiak ikusteko, IV. eranskinera jo).

Zazpigarren galderan, irakasle bakoitzak bere ikasleek zein momentutan marrazten duten erantzun behar izan du. Gehiengoak, gelako ariketak amaitzen dituztenean eta marraztu nahi dutela esaten dutenean marrazten dutela adierazi du. 5. mailako irakasle batek eta 6.

mailako bi irakaslek, haurren gehiengoak ez duela marrazten adierazi dute, honako hau idatziz: “adinaren kontua izango da, ez dute eskatzen (11-12 urte)”; “ez dago irrika hori gelan. Beste edozein aktibitate egitea nahiago dute momentu honetan, ordenagailua edo eskulanak adibidez. 3. mailako gelan sartzen naizenean, marraztea eskatzen dute beti”. Beste irakasle batek “besterik” aukeran, “norbaitek lasaitzeko beharra daukanean” adierazi du. Hurrengo galderan, ikasleren batek marrazkigintzarako gogoia erakusten ez badu, hori ekiditeko eta ikaslea motibatuzko zerbait egiten al duten galdetu zaie. Gehiengoak baietz esan du, zenbait adibide emanez (ikus IV. eranskina), eta soilik bik ezetz adierazi dute, 5. mailako gizon batek (marrazketari 3ko puntuazioa eman diona) eta 3. mailako emakume batek.

Bederatzigarren galderan, plastika ikasgaia nola ematen duten azaldu behar izan dute. Ia denek Txanela proiektuaren barruan lantzen dela adierazi dute: “gai bakoitzak du bere plastika proiektua landutakoarekin txertatzeko”; “txanelak proposatzen dituen gauzak egiten ditugu”. Hamargarren galderan, plastika ikasgaia noizbait gelatik kanpo eman al duten galdetu zaie eta soilik bik baietz esan dute. Biak plastika gelara joan direla adierazi dute, ikasleak askoz ere motibatuago eta esperimintatzeko gogoekin egoten direlako. Azkeneko galderan, marrazketaren inguruan ea formakuntza beharra somatzen duten adierazi behar izan dute. Galdera honen emaitza nahiko erdibituta egon da, erdiak baino gehiago ezetza emanez eta erdiak baino pixka bat gutxiago baiezkoa emanez. Hona hemen irakasle batzuen hitzak: “Bai. Ahaztutako arlo bat dela kontsideratzen dut. Ez dugu baliabide/tresnarik zukua ateratzeko eta onurak ateratzeko”; “inoiz ez dago soberan formazioa, baina beste lehentasun batzuk ditut orain”; “gaur egun lehentasunen artean marrazketarena ez zen lehenengoen artean egongo”.

Ikasleen inkestari dagokionez, lortutako emaitzak hurrengo lerroetan mailaka azaltzen dira:

1. mailan, 25 ikaslek egin dute inkesta. Lehenengo galderan, ea marraztea gustuko duten galdetu zaie. Ia gehienek baiezkoa eman dute, eta soilik bost ikaslek “batzuetan” erantzun dute. Honelako azalpenak eman dituzte: “beti ez dut margoztu nahi”; “batzuetan marrazkiak ez zaizkit ateratzen”. Bigarren galderan, ea zergatik marrazten duten erantzun behar izan dute. Gehiengoak entretenimendu bat delako adierazi du. Hurrengo galderaren emaitzak nahiko erdibituta egon dira, hots, ea norbaitek marrazten irakatsi dien galderan. Baiezkoa eman dutenen artean, etxean gurasoek irakatsi dietela esan dute. Seigarren

galderan, ea normalean zer marrazten duten galdetu zaie, eta gehiengoak pertsonak marrazten dituela aipatu du. Batzuek objektuak marrazten dituztela aipatu dute, etxea, adibidez. Eta “besterik” aukeratu dutenek ostadarra marrazten dutela idatzi dute. Zazpigarren eta zortzigarren galderetan, gehienbat non marrazten duten eta non gustatzen zaien marraztea galdetu zaie. Bi galderak nahiko erdibituta egon dira, etxea eta ikastolaren artean (ikasleen hitzak ikusteko V. eranskinera jo). Bederatzigarren galderan, hots, ikastolan zein momentutan marrazten duten, ia gehiengoak nahi duenean marrazten duela aipatu du, eta batzuek, aldiz, ikastolako lanak amaitzean. Hamargarren galderan, ia denek egindako marrazkiak gustatzen zaizkiela aipatu dute, soilik batek ezetz esan du: “txarto ateratzen zaizkit”. Hurrengo galderan, egindako marrazkiekin zer egiten duten galdetu zaie. Gehiengoak gordetzen dituela aipatu du, eta batzuek norbaiti oparitzen dizkiotela. Bi ikaslek zakarrentzira botatzen dituztela aipatu dute, egindako marrazkiak normalean ez zaizkielako gustatzen. Azkeneko galderan, ea marrazteko denbora gehiago nahi duten galdetu zaie. Denek baietz esan dute, bik izan ezik: “nik jolastu nahi dut”; “marraztea ez zait asko gustatzen”.

2. mailan, 26 ikaslek egin dute inkesta. Lehenengo galderan, ea marraztea gustuko duten galdetu zaie. Ia denek baiezkoa eman dute, bi ikaslek izan ezik, “batzuetan” erantzun dutenak. Batek, honelako azalpena eman du: “batzuetan nekatzen naizelako”. Bigarren galderan, ea zergatik marrazten duten, gehiengoak entretenimendu bat delako adierazi du, eta askok sentimenduak adierazteko ere aipatu dute. Hurrengo galderan, hots, ea norbaitek marrazten irakatsi dien galderan, erdiak baino gehiagok baiezkoa eman du, margolaritzan irakatsi dietela aipatuz. Seigarren galderan, ea normalean zer marrazten duten galdetu zaie eta nahiz eta pertsonen aukeraketa portzentai altuena izan, denetarik aipatu dute. Zazpigarren galderako emaitzak, gehienbat non marrazten duten, nahiko erdibituta egon dira, etxea eta ikastolaren artean. Ikasle batzuek kalean marrazten dutela aipatu dute ere. Hala ere, hurrengo galderan, ea gehienbat non marraztea gustatzen zaien, gehiengoak etxean aipatu du (ikasleen hitzak ikusteko V. eranskinera jo). Bederatzigarren galderan, hots, ikastolan zein momentutan marrazten duten, ia gehiengoak plastika orduan marrazten duela aipatu du, beste batzuek ikastolako lanak amaitzean aipatu dute, eta gutxi batzuek nahi dutenean. Hamargarren galderan, ia denek egindako marrazkiak gustatzen zaizkiela aipatu dute, soilik batek ezetz esan du: “oso itsusiak direlako.” Hurrengo galderan, egindako marrazkiekin zer egiten duten galdetu zaie. Gehiengoak gordetzen dituela aipatu

du, eta batzuek norbaiti oparitzen dizkiotela. Azkeneko galderan, ea marrazteko denbora gehiago nahi duten galdetu zaie. Gehiengoak baietz esan du, baina sei ikaslek ezetz adierazi dute, marrazteko nahiko denbora dutela esanez.

Bigarren ziklora salto eginez, 3. mailako 25 ikaslek osatu dute inkesta. Lehenengo galderan, nahiz eta gehiengoak marraztea gustuko duela esan, oso portzentai altuak “batzuetan” aukera hautatu du (euren hitzak ikusteko jo V. eranskinera) eta batek ezetza eman du: “batzuetan ez dakidalako zer marraztu”. Bigarren galderan, ea zergatik marrazten duten, gehiengoak entretenimendu bat delako adierazi du, eta askok sentimenduak adierazteko ere aipatu dute. Batek, marrazten ez duela aipatu du. Hurrengo galderan, erdiak baino gehiagok marrazten irakatsi dietela esan du, margolaritzako irakasleak eta gurasoek. Seigarren galderan, denetarik marrazten dutela adierazi dute. Zazpigarren eta zortzigarren galderetako emaitzak, gela honetan ere, nahiko erdibituta egon dira, etxea eta ikastolaren artean. Bi ikaslek ametsetan marrazten dutela esan dute (ikasleen hitzak ikusteko V. eranskinera jo). Bederatzigarren galderan, ia denek plastika orduan marrazten dutela azaldu dute, eta batzuek ikastolako lanak amaitzean. Hamargarren galderan, ia denek egindako marrazkiak soilik batzuetan gustatzen zaizkiela aipatu dute, arrazoi ezberdinengatik (ikus V. eranskina) eta gutxiengoak baietz esan du. Hurrengo galderan, egindako marrazkiekin zer egiten duten galdetu zaie. Gehiengoak gordetzen dituela aipatu du eta bi ikaslek zakarrontzira botatzen dituztela aipatu dute, haien gustukoak ez direlako. Azkeneko galderan, nahiz eta gehiengoari marrazteko denbora gehiago izatea gustatuko litzaiokeen, oso portzentai altuak ezetza eman du, marrazten aspertu egingo zela esanez.

4. mailari dagokionez, 26 ikaslek bete dute inkesta. Lehenengo galderan, erdiak baino pixka bat gehiago marraztea gustuko duela erantzun du. Ikasle batzuek “batzuetan” erantzun dute eta hiru umek ezetza eman dute (euren hitzak ikusteko jo V. eranskinera). Bigarren galderan, erdiak gutxi gorabehera entretenimendu bat delako marrazten duela adierazi du, besteek sentimenduak adierazteko eta komunikatzeko bide bat delako aipatu dute. Bi ikaslek marrazten ez dutela esan dute. Hurrengo galderaren emaitzak nahiko erdibituta egon dira, hots, ea norbaitek marrazten irakatsi dien galderan. Baiezkoa eman dutenen artean, etxean gurasoek irakatsi dietela esan dute. Seigarren galderan, nahiz eta gehiengoek pertsonak marrazten dituztela esan, beste aukerak ere hautatu dituzte. “Besterik” adierazi dutenen artean, honelako erantzunak eman dituzte: paisaiak, izenak 3 dimentsiotan, itzalak, begiak... Zazpigarren eta zortzigarren galderetan, gehienbat non marrazten duten eta non gustatzen zaien marraztea galdetu zaie. Bi galderak nahiko erdibituta egon dira, etxea eta ikastolaren artean (ikasleen hitzak ikusteko V. eranskinera jo). Bederatzigarren galderan, hots, ikastolan zein momentutan marrazten duten, ia gehiengoak plastika orduan marrazten duela aipatu du, eta beste batzuek, aldiz, ikastolako lanak amaitzean. Hamargarren galderan, erdiak egindako marrazkiak gustatzen zaizkiola aipatu du, batzuek “batzuetan” hautatu dute eta hiru ikaslek ezetz esan dute: “oso itsusiak direlako”. Hurrengo galderan, gehiengoak egindako marrazkiak harentzat gordetzen dituela esan du, soilik batek zakarrontzira botatzen dituela azaldu du. Azkeneko galderan, ea marrazteko denbora gehiago nahi duten galdetu zaie. Gehiengoak baietz esan du baina ikasle kopuru handi batek ezetza eman du.

Oraingoan, hirugarren ziklora salto eginez, 5. maila dugu. Gela honetan, 25 ikaslek bete dute inkesta. Lehenengo galderan, nahiz eta gehiengoak marraztea gustukoa duela esan, ikasle batzuk “batzuetan” aukera hautatu du eta hiru ikaslek ezetza eman dute (euren hitzak ikusteko jo V. eranskinera). Bigarren galderan, gehiengoak entretenimendu bat delako marrazten duela adierazi du, eta askok sentimenduak adierazteko eta komunikatzeko bide bat delako ere aipatu dute. Bi ikaslek marrazten ez dutela adierazi dute. Hurrengo galderan, erdiak baino pixka bat gehiago marrazten irakatsi diotela aipatu du, etxean gurasoek eta margolaritzako irakasleak. Seigarren galderan, gehiengoak egiten dituen marrazkien adibide ezberdin batzuk eman ditu (ikus V. eranskina). Zazpigarren galderetako emaitzak, gela honetan ere, nahiko erdibituta egon dira, etxea eta ikastolaren artean. Hala ere, erdiak baino pixka bat gehiago etxean marraztea nahiago duela baieztatu du (ikasleen hitzak

ikusteko V. eranskinera jo). Bederatzigarren galderan, plastika orduan eta ikastolako lanak amaitzean marrazten dutela aipatu dute. Hamargarren galderan, erdiak egindako marrazkiak gustatzen zaizkiola adierazi du, besteek “batzuetan” adierazi dute eta hiru ikaslek ezetza eman dute, arrazoi ezberdinengatik (ikus V. eranskina). Hurrengo galderan, egindako marrazkiekin zer egiten duten galdetu zaie. Gehiengoak gordetzen dituela esan du, eta hiru ikaslek zakarrontzira botatzen dituztela aipatu dute, batzuetan haien gustukoak ez direlako. Azkeneko galderan, nahiz eta gehiengoari marrazteko denbora gehiago izatea gustatuko litzaiokeen, batzuek ezetza eman dute, marrazten gustuko ez dutelako.

Azkenik, 6. mailako ikasleetan zentratuz, hurrengo lerroetan 24 ikasleren emaitzak aurkeztuko dira. Lehenengo galderan, nahiz eta portzentai altuak “batzuetan” edota ezetza eman, gehiengoak marraztea gustukoa duela adierazi du (euren hitzak ikusteko jo V. eranskinera). Bigarren galderan, gehiengoak entretenimendu bat delako marrazten duela adierazi du, gainerako ikasleek sentimenduak adierazteko ere esan dute. Bost ikaslek marrazten ez dutela aipatu dute. Hurrengo galderan, erdiak baino pixka bat gehiago marrazten irakatsi dietela adierazi du, etxean gurasoek edota margolaritzako irakasle batek. Seigarren galderan, denetarik marrazten dutela esan beharra dago. Zazpigarren eta zortzigarren galderetan, gehiengoak gehienbat etxean marrazten duela adierazi du, baita marrazteko bere gustukoaren lekua dela aipatuz (ikasleen hitzak ikusteko V. eranskinera jo). Bederatzigarren galderan, ikastolan ea zein momentutan marrazten duten galderan, aukerak nahiko erdibituta egon dira. Hamargarren galderan, erdiak egindako marrazkiak gustatzen zaizkiola aipatu du, besteek batzuetan adierazi dute eta bost ikaslek ezetza eman dute, gela honetan ere arrazoi ezberdinengatik (ikus V. eranskina). Hurrengo galderan, egindako marrazkiekin zer egiten duten galdetu zaie. Gehiengoak gordetzen dituela esan du, hiru ikaslek, aldiz, zakarrontzira botatzen dituztela, batzuetan haien gustukoak ez direlako. Hona hemen ikasle baten hitzak: “niri zakarrontzira botatzeak pena ematen dit baina nire amak botatzen dizkit”. Azkeneko galderan, nahiko erdibituta egon dira emaitzak. Hala ere, gehiengoak marrazteko denbora gehiago ez duela nahi aipatu du, horretarako denbora nahikoa dutela esanez.

## 4.2. Ondorioak

Inkestetan jasotako informazioa aztertu ostean, esan daiteke ikastola honetako irakasleek ez dutela marrazketaren garrantzia ukatzen. Irakaslegoaren kopuru handi baten ustez, marrazketa ez da soilik entretenitzeko ariketa huts bat, baizik eta munduarekiko gure pentsamenduak, sentimenduak eta jakintzak komunikatzeko ezinbesteko jarduerak bat, Vargasek (2004) dioten moduan. Nahiz eta marrazketak duen garrantzia baieztatu, irakasle gutxi batzuei marraztea gustatzen zaie. Aguirrek (1997) aipatzen duen bezala, helduek oso trantze txarrak pasa behar izaten dituzte edozer marraztu behar dutenean eta beti irtenbide salbatzaile berdinari heltzen diote: “Ni ez naiz honetarako jaio! Ni marrazkigintzan oso txarra naiz!”. Inkestetan ikusi ahal izan dugun moduan, irakasle gehienek ez dute euren burua marrazteko gai ikusten. Eta Aguirrek aipatzen dituen hitz oso antzekoak irakur daitezke; “ez naiz trebea”, “beti ateratzen zait dena gaizki”, etab. Gainera, irakasle gehienek bizitzan zehar deserosoak edo desmotibatzaileak izan diren momenturen bat bizi dute, eta honek seguruenik eragin handia izan du eta izango du marrazkigintzaren prozesuan eta baita honekiko iritzian ere.

Aguirrek (1997) esaten duen esaldi bat gogora ekarri nahiko nuke:

Haurrak 9-10 urte inguru dituenean adierazpen grafikoaren punturik gorena lortuko du eta Lehen Hezkuntza amaitzean dagoenean, haurra erabat kezkatu egongo da bere marrazteko trebetasun ezarekin. Ez ditu gustuko izango bere marrazkiak eta, askoz ere kezagarriago dena, ez du bere burua marrazketarako gai sentituko.

Inkestetan ikusi dugun moduan, eta esaldi hau kontuan izanda, oso erantzun ezberdinak lortu dira Lehen Hezkuntzako lehenengo eta azkeneko mailatan. Lehenengo eta bigarren mailatan ikus daitekeen moduan, gehiengoak marrazteko grina eta ilusioa du, egindako marrazkiak gustatzen zaizkie eta marrazteko denbora gehiago nahiko lukete. Hurrengo mailatan, aldiz, emaitza guztiz ezberdinak topa ditzakegu; marraztea gustatzen ez zaiela esaten hasten dira, batzuei egindako marrazkiak ez zaizkiela gustatzen eta zakarrontzira botatzen dituztela eta ikasle kopuru handiak marrazteko denbora gehiago ez duela nahi aipatzen du.

Nahiz eta irakasle gehienek marrazkigintza positiboki baloratu, oraindik ere irakasle batzuek soilik uzten diete marraztea ikasleei gelako ariketak amaitzerakoan edota plastika



orduetan. 1. mailako ikasleek goizeko lehenengo berrogeita bost minutuetan denbora librea dute lasai egoteko. Normalean, tarte honetan, ikasleak irakurtzen egon behar dute baina tutoreak jolastea ere uzten die. Askotan, ikasleak tutorearengana hurbildu dira ea marraztu ahal duten galdetuz, eta hiru hilabetetan ez die inoiz utzi. Egoera honen aurrean nire buruari galdetzen diot: ikasleek jolastu ahal dute eta ezin dute marraztu? Müllerrek eta Lópezek (2011: 15) adierazi duten bezala, bi ekintzak ezinbestekoak dira: “marraztea atsegina da umeentzako eta sentrazio hori jolastearekin duten sentrazioarekin lotzen da. Bi ekintzak, marraztea eta jolastea, pozgarriak dira txikientzako”.

Aguirrek (1997) baieztatzen duen moduan, haurrak marrazkigintzarako gaitasunik erakusten ez badu normalean ez da ezer egiten eta haurrak ez du gaitasun hori garatzen. Modu honetan, irakasle askok, ikaslea marrazten motibatzeke ideiak edota ereduak ematen dizkiotela adierazi dute. Honek ikasleak marrazten motibatzeke lagundu dezake, baina zer egiten da haurrak ideia horiek marrazteko gaitasunik erakusten ez badu? Mujicak (2012) adierazten duen moduan, liburuetatik edo bestelako baliabideetatik hartutako ereduak ikasleari kopiaatzeko ematea ez da aukera egokiena. Izan ere, irudi horiek hurrek oinarri bat lortzeko diseinatuta daude, baina hala ere, hauen nortasunean kontrako ondorio bat sortzen dute. Irakasleak kontziente dira ez dutela baliabide edota ezagutza nahikorik marrazkigintzari zukua ateratzeko, baina hala ere, gehiengoak ez du arlo honetan formakuntzaren beharrik ikusten.

Marrazki libre edo espontaneoak ez du lekurik Arte Hezkuntzan. Izan ere, plastika ikasgaian txanela proiektuarekin loturik dauden eskulanak egiten dituzte, marrazki libreaki lekurik utzi gabe. Gainera, soilik bi irakaslek aipatu dute plastika ikasgaia gelatik kanpo eman dutela, baina ez ingurune ezberdin batera joateko, baizik eta plastika gelara joateko. Toki itxi batean egoteak ez du bidea ematen ikasleek esperimintatzeko, hots, sormenari zukua ateratzeko.

Azkenik, Albanok eta Pricek (2014) esandako esaldi batekin amaitu nahiko nuke: “arte adierazpenari eskaintzen diogun denbora geure buruari eskaintzen diogun denbora da. Hots, gure pentsamenduari eta emozioari forma emateko denbora”. Ikusi ahal izan dugun moduan, arteari ematen zaion denbora eskasa da, oraindik ere bigarren plano batean gelditzen delarik. Irakasle baten hitzak gogoratuko ditugu: “gaur egun lehenetasunen artean marrazketarena ez zen lehenengo artean egongo”. Irakasle askok marrazketari ez badiote

garrantzirik ematen, ikasleek nola izango dute marrazteko ilusioa? Urteetan zehar... nola ez dute galduko ilusio hori?

Guzti honetan hurrengoa argi izan behar dugu: pertsona bakoitzaren atzean istorio bat dago, gaur egun garenak izateko arrazoi bat dago. Ez gara bakarrik guk horrela nahi izan dugulako, baizik eta iraganean zerbaitek edo norbaitek horrela izatera eta pentsatzera bultzatu gaituelako. Eta batzuetan ezinezkoa da hori aldatzea. Baina, aldatzeko aukera ematen badigute, zergatik gehiengoek mundua aldatzean pentsatzen dute norbera aldatzean pentsatu beharrean? Has gaitzen hemendik, gauza txikiak aldatzen, etorkizun batean gauza handiak izan daitezkeenak.

## 5. Erreferentzia bibliografikoak

- Aguirre, I. (1997). Marrazki librea, benetan librea? *Hik hasi*, 2(17), 8-15. 2018-12-25an berreskuratua, hemendik: [http://www.hikhasi.eus/uploads/erab\\_1/2002/03/1498580406-17%20Monografikoa.pdf](http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2002/03/1498580406-17%20Monografikoa.pdf)
- Aguirre, I. (2006). Modelos formativos en educación artística: Imaginando nuevas presencias para las 26ibujos educación. Universidad Pública de Navarra: Bogotá. 2018-12-29an berreskuratua, hemendik: <https://bitacoramaedar.files.wordpress.com/2013/08/imanol-aguirre-modelosformativos-en-e-artc3adstica.pdf>
- Aguirre, I. (2016). *Prospeccions i alternatives de futur en l'educació artística* [Elkarrizketa Imanol Aguirrerekin]. Arts Santa Mónica/ Generalitat de Catalunya- Department de Cultura.
- Albano, A. A. eta Price, G. (2014). Artes plásticas. Hemen: AA.VV. Artes y emociones que potencian la creatividad, 89-104 or. Botin Fundazioaren Txostena. Santander: Botin Fundazioa.
- Clouder, C. (2014). Los hilos que entretejen la creatividad. Hemen: Artes y *emociones que potencian la creatividad*. 26-35 or. Botin Fundazioaren Txostena. Santander: Botin Fundazioa.
- García, J. (2003). *Educación para escribir*. Mexiko: Limusa
- Guerrero, F. (2006). Inteligencias múltiples. 2019-01-02an berreskuratua, hemendik: [www.monografias.com/trabajos12/intmult/intmult.shtml](http://www.monografias.com/trabajos12/intmult/intmult.shtml)
- Hernández, F. (2000). *Educación y cultura visual*. Bartzelona: Octaedro.
- Juaristi, L.P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua. 2019-04-12an berreskuratua, hemendik: <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/15493/USWEB035407.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Maganto, C. (1997). Marrazkia nortasunaren adierazpen gisa. *Hik hasi*, 2(17), 37-41. 2018-12-25an berreskuratua, hemendik: [http://www.hikhasi.eus/uploads/erab\\_1/2002/03/1498580406-17%20Monografikoa.pdf](http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2002/03/1498580406-17%20Monografikoa.pdf)
- Mujica Jiménez, A. (2012). Estrategias para estimular el dibujo en los estudiantes de educación inicial. *Revista de Investigación*, 36 (77), 147-164.
- Müller, M. B. eta López, M. C. (2011). *Los 26ibujos sen el abuso sexual infantil*. Maipue: Buenos Aires.
- Preciado, T. (1997). Marrazketa libreaz zenbait gogoeta. *Hik hasi*, 2(17), 26-35. 2018-12-25an berreskuratua, hemendik: [http://www.hikhasi.eus/uploads/erab\\_1/2002/03/1498580406-17%20Monografikoa.pdf](http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2002/03/1498580406-17%20Monografikoa.pdf)
- Sirera, M. (2014). Importancia de la expresión plástica en las aulas, medio de desarrollo de la creatividad. *Red Cenit*. Centros de desarrollo cognitivo.
- Vargas, M. R. (2004). El dibujo como primera escritura del niño. *Educare*, (5), 91-103. 2019-01-02an berreskuratua hemendik: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4781180>

**ERANSKINAK****I. eranskina. Irakasleen inkesta****MARRAZKIGINTZA INGURUKO INKESTA**

*Inkesta honetan marrazkigintza inguruko galderak aurkituko dituzu. Ikus dezakezun bezala, galdera bakoitzean zenbait aukera dituzu. Hala ere, aukera bat baino gehiago hautatzeko aukera duzu. Nahiz eta galdera batzuk konkretuak izan ondo egongo litzateke zure bizipenak eta iritziak adieraztea. Espazioari dagokionez, beste orri batean erantzuteko aukera ere baduzu eta inkesta orriarekin batera lotzeko. Eskerrik asko zure denboragatik.*

**Izen-abizenak:****Maila:**

- Inkesta anonimoa (**adierazi**):

Emakumea

Gizona

**1. Zer pentsatzen duzu marrazketaren inguruan? Zergatik?**

- |   |  |                     |
|---|--|---------------------|
| b. Ikasleek denbora pasatzeko aukera ona dela | c. Ikasleek euren sentimenduak azaleratzeko ezinbesteko ariketa dela | d. Funtsik ez duela |
|---|--|---------------------|

**Zergatik?****2. Marraztea gustatzen al zaizu? Zergatik?**

- |        |       |              |
|--------|-------|--------------|
| a. Bai | b. Ez | c. Batzuetan |
|--------|-------|--------------|

**Zergatik?**

- |                            |  |                                      |              |
|----------------------------|--|--------------------------------------|--------------|
| a. Marrazten ez dakidalako | b. Nire marrazkiak ez zaizkidalako gustatzen | c. Marrazteko denborarik ez dudalako | d. Besterik: |
|----------------------------|--|--------------------------------------|--------------|

**Zehaztu zure erantzuna:**

**3. Zein adinarekin hasi zinen marrazten? Non? Norekin?**

**4. 0tik 10era zenbateko garrantzia ematen diozu marrazketari? Zergatik?**

0    1    2    3    4    5    6    7    8    9    10

**Zergatik?**

**5. Marrazketaren inguruan, zure bizitzan zehar deserosoa edo desmotibatzailea izan den momenturen bat bizi al duzu? Kontatu zure esperientzia:**

**6. Txikia zinenean, zer nolako garrantzia ematen zitzaion marrazketari? Eta nola irakasten zizuten Plastika ikasgaia?**

**7. Zure ikasleek zein momentutan marrazten dute? Zergatik?**

**a.** Gelako ariketak amaitzen dituztenean

**b.** Marrazteko eskatzen dizutenean

**c.** Gehiengoak ez du marrazten

**d.** Besterik:

**Zergatik?**

**8. Ikasleren batek marrazkigintzarako gogoia erakusten ez badu, zerbait egiten duzu hori ekiditeko eta ikaslea motibatzeke?**

**9. Nola ematen duzu plastika ikasgaia zure ikasleekin? Zer lantzen duzue? Baliabide espeziфикoren bat erabiltzen duzue?**

**10. Noizbait eman al duzu plastika ikasgaia gelatik kanpo?**

**a.** Bai (Non? Emozio ezberdinen bat sumatu al duzu ikasleengan? Kontatu bititako esperientzia).

**b.** Ez

**11. Formakuntza beharra somatzen duzu marrazketaren inguruan?**



**5. Aurreko galdera “Bai” izan bada, aipatu nork irakatsi eta non ikasi duzun:**

---

---

---

**6. Normalean zer marrazten duzu?**

a. Objektuak

b. Pertsonak

c. Marrazki  
abstraktuak

**7. Zein eremutan marrazten duzu gehienbat?**

a. Ikastolan

b. Etxean

c. Kanean

d. Ez dut  
marrazten

**8. Zein eremutan gustatzen zaizu gehien marraztea? Zergatik?**

a. Ikastolan

b. Etxean

c. Kanean

d. Ez dut  
marrazten

**Zergatik?** \_\_\_\_\_

---

---

**9. Ikastolan zaudenean, zein momentutan marrazten duzu?**

a. Nahi dudanean

b. Ikastolako lanak  
amaitzen  
ditudanean

c. Plastika  
orduan

d. Ez dut  
marrazten

**10. Gustatzen al zaizkizu egiten dituzun marrazkiak? Zergatik?**

a. Bai

b. Ez

c. Batzuetan

**Zergatik?** \_\_\_\_\_

---

---



**11. Zer egiten duzu egindako marrazkiekin? Zergatik?**

a. Niretzat gorde

b. Zakarrontzira bota

c. Norbaiti oparitu

**Zergatik?** \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

**12. Gustatuko al litzaizuke marrazteari denbora gehiago eskaintzea? Zergatik?**

a. Bai


b. Ez

**Zergatik?** \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

### III. eranskina. Marrazki abstraktuen irudiak



*1.irudia. Marrazki abstraktua*




*2. irudia. Marrazki abstraktua*




*3. irudia. Marrazki abstraktua*


**IV. eranskina. Irakasleen inkestren grafikoak**




1. grafikoa. LHko irakasleak. “Zer pentsatzen duzu marrazketaren inguruan?”




2. grafikoa. LHko irakasleak. “Marraztea gustatzen al zaizu?”




3. grafikoa. LHko irakasleak. “0tik 10era zenbateko garrantzia ematen diozu marrazketari?”




4. grafikoa. LHko irakasleak. “Marrazketaren inguruan, zure bizitzan zehar deserosoa izan den momenturen bat bizi al duzu?”




5. grafikoa. LHko irakasleak. “Zure ikasleek zein momentutan marrazten dute?”



6. grafikoa. LHko irakasleak. “Ikasleren batek marrazkigintzarako gogoia erakusten ez badu, zerbait egiten duzu hori ekiditeko eta ikaslea motibatuzeko?”



7. grafikoa. LHko irakasleak. "Noizbait eman al duzu plastika ikasgaia gelatik kanpo?"



8. grafikoa. LHko irakasleak. "Formakuntza beharra somatzen duzu marrazketaren inguruan?"

• Irakasleen hitzak

1. Zer pentsatzen duzu marrazketaren inguruan? Zergatik?

a. Irakasleek denbora pasatzeko aukera ona dela      **b.** Irakasleek euren sentimenduak azalertzeko ezinbesteko ariketa dela      c. Funtsik ez duela

Zergatik?:  
 Irakasle asko oso lotatuta daude eta ez dituzte haien gauzak kaltetzen. Baiua ukitzekiako egitean eta azalpena ematean haien uste sentitzen diren edo pentsatzen dutena adierazten dute.

2. Marraztea gustatzen al zaizu? Zergatik?

a. Bai      b. Ez      **c.** Batzuetan

Zergatik?

a. Marratzen ez dakidalako      **b.** Nire marrazkiak ez zaizkidalako gustatzen      **c.** Marrazteko denborarik ez dudalako      d. Besterik:

Zehaztu zure erantzuna:  
 Marraztea gustatzen zaizt eta lasaitu egiten nau. Baiua ukitu ukitzekiako ez dira oso onak eta gustatzen ez zaizkidalanean bota egiten ditut eta denbora luzez beste bat egite gabe egiten naiz. Horretaz gain ez daukat denbora askirik. Gelien bat ordengaitan egiten ditut.

3. Zein adinarekin hasi zinen marratzen? Non? Norekin?

4. irudia. LHko 1. mailako irakaslea

1. Zer pentsatzen duzu marrazketaren inguruan? Zergatik?

- a. Ikasleek denbora pasatzeko aukera ona dela
- b. Ikasleek euren sentimenduak azaleratzeko ezinbesteko ariketa dela
- c. Funtsik ez duela

Zergatik?:

Bateuetan aukera ona da sentimenduak adierazteko zein entretentitzeko. Baina badago gendec, marraztu behar duenean ez dena eroso sentitzen eta kasu horietan helburua aldatu egia daiteke.

2. Marraztea gustatzen al zaizu? Zergatik?

- a. Bai
- b. Ez
- c. Batzuetan

Zergatik?

- a. Marrazten ez dakidalako
- b. Nire marrazkiak ez zaizkidalako gustatzen
- c. Marrazteko denborarik ez dudalako
- d. Besterik:

Zehaztu zure erantzuna:

Ez zait ondo ematen marraztea, beraz hori kontuan izanda eta denbora falta ez dut ia marrazten, nahiz eta badakidan, praktikatuko banu hobetuko nukeela.

5. irudia. LHko 2. mailako irakaslea

1. Zer pentsatzen duzu marrazketaren inguruan? Zergatik?

- a. Ikasleek denbora pasatzeko aukera ona dela
- b. Ikasleek euren sentimenduak azaleratzeko ezinbesteko ariketa dela
- c. Funtsik ez duela

Zergatik?:

Hainbat une lasai bat duen, batutan ez dira konturatu bere epea emozionala adierazten ari direla. Pertsona berrak efudako lanah berikutean hain aferian geratzen da.

2. Marraztea gustatzen al zaizu? Zergatik?

- a. Bai
- b.  Ez
- c. Batzuetan

Zergatik?

- a. Marrazten ez dakidalako
- b. Nire marrazkiak ez zaizkidalako gustatzen
- c. Marrazteko denborarik ez dudalako
- d. Besterik:

Zehaztu zure erantzuna:

Beti dauin oso trankese itan uair. Honeu ondorioz, ez dut gogokoe lan hau. Eskolan neurenean eta jeneren lanetan marrazketan este sorultaruk.

6. irudia. LHko 2. mailako irakaslea

1. Zer pentsatzen duzu marrazketaren inguruan? Zergatik?

- a. Ikasleek denbora pasatzeko aukera ona dela
- b. Ikasleek euren sentimenduak azaleratzeko ezinbesteko ariketa dela
- c. Funtsik ez duela

Zergatik?:

Astokatu hitzetan azaltzen ez dakitena marrazkien bidez egiten dut

2. Marraztea gustatzen al zaizu? Zergatik?

- a. Bai
- b. Ez
- c. Batzuetan

Zergatik?

- a. Marrazten ez dakidalako
- b. Nire marrazkiak ez zaizkidalako gustatzen
- c. Marrazteko denborarik ez dudalako
- d. Besterik:

Zehaztu zure erantzuna:

Beti atzeratu zait dena garaiak. Ez daukat esku on

7. irudia. LHko 3. mailako irakaslea

2. Marraztea gustatzen al zaizu? Zergatik?

- a. Bai
- b. Ez
- c. Batzuetan

Zergatik?

- a. Marrazten ez dakidalako
- b. Nire marrazkiak ez zaizkidalako gustatzen
- c. Marrazteko denborarik ez dudalako
- d. Besterik:

Zehaztu zure erantzuna:

Betidanik marrazteak erlaxatu egiten navelako eta gainera laguntzen diebako nire ideiak benetan errealitatean pasatzen

8. irudia. LHko 5. mailako irakaslea

1. Zer pentsatzen duzu marrazketaren inguruan? Zergatik?

a. Ikasleek denbora pasatzeko aukera ona dela

Ikasleek euren sentimenduak azaleratzeko ezinbesteko ariketa dela

c. Funtsik ez duela

Zergatik?:

Marrazteak asko laguntzen du sentimenduen adierazpenean.  
Momentuan momentuko epera idazteko ezinbestekoa ikusten dut.  
Zalantzarik gabe denbora pasatzeko bario duela baita, garuna erlaxatuz.

2. Marraztea gustatzen al zaizu? Zergatik?

Bai

b. Ez

c. Batzuetan

Zergatik? Betidanik gustatu itan zait marrazkiak / irudiak produtzitaz.

9. irudia. LHko 6. mailako irakaslea

4. Oтик 10era zenbateko garrantzia ematen diozu marrazketari? Zergatik?

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

Zergatik?: Sentimenduak adierazteko balabete ona delako, zultasunak hobeto gauditako eta une atseginak ere pasatuko.

10. irudia. LHko 4. mailako irakaslea

4. Oтик 10era zenbateko garrantzia ematen diozu marrazketari? Zergatik?

0 1 2 3 4 5 6  8 9 10

Zergatik?:

Esan didan bezala, garuna lasaitzen duelako eta zalantzarik gabe sentimenduen kidea ketan laguntzen duelako.

11. irudia. LHko 6. mailako irakaslea

4. Orik 10era zenbateko garrantzia ematen diozu marrazketari? Zergatik?

0 1 2 3 4 5 6 (7) 8 9 10

Zergatik?: Orite dut tresna ona dela haiubat arlotarako: lasaitzeko, edukiak bisualki hobeto menperatzeko, hitzetan adierazteko zaila izan daitekeena hobeto adierazteko.

12. irudia. LHko 2. mailako irakaslea

5. Marrazketaren inguruan, zure bizitzan zehar deserosoa edo desmotibatzailea izan den momenturen bat bizi al duzu? Kontatu zure esperientzia:

Bai. Nire lagunik orena denak oso ondo ukoaztu izan du txiki txikitatik. Bere ukoazkiak beti ziren onenak eta lehiaketa guztiak irabazten zituen. Egum batean uire ukoazkia oso onua zela iruditu zitzaidan, bera baino hobea. Baina berak uire ukoazkia barre egin zuen eta beste guztiak berarekin bat egin zuten.

13. irudia. LHko 1. mailako irakaslea

5. Marrazketaren inguruan, zure bizitzan zehar deserosoa edo desmotibatzailea izan den momenturen bat bizi al duzu? Kontatu zure esperientzia:

10 urte nituela marrazketa klaseak jarri nituen eta ingurure on lehiakorra zela iruditu zitzaidan. Hasi behar nuen, ea nori marrazten zuen hobeto irudien.

14. irudia. LHko 6. mailako irakaslea

5. Marrazketaren inguruan, zure bizitzan zehar deserosoa edo desmotibatzailea izan den momenturen bat bizi al duzu? Kontatu zure esperientzia:

Institutuak iruditu nuen marrazketa geometrikoak lauruz beste lauruztatik. Abizenen ezartzean gurea (bere abizenak PINEDA zuen) eta uirekin jokatzen zuten. Bere oso onua zuten orok honetara, honetara finkatzen azerketan trukatzeko gurean lauruz elkarri.

15. irudia. LHko 2. mailako irakaslea



6. Txikia zinenean, zer nolako garrantzia ematen zitzaien marrazketari? Eta nola irakasten zizuten Plastika ikasgaia? Zein eduki lantzen ziren?

Txikia zinenean garrantzi handia ematen zitzaien gehien bat Htt-n. Eskuekin, oinuekin, etb. uongotekin gurean. Forma ezberdinetan, urtoreak, gorpuzte... lantzen genituen.

16. irudia. LHko 1. mailako irakaslea

6. Txikia zinenean, zer nolako garrantzia ematen zitzaien marrazketari? Eta nola irakasten zizuten Plastika ikasgaia? Zein eduki lantzen ziren?

Irakasleak emandako ereduak kopiatu behar izaten genuen. Gogoan dut eskulan bat, kaxa bat (ejurrietan) apaindu behar izan genuen, kromoekin, bernizarekin. antzinakoa balitz moduan. Josi ere egiten genuen.

17. irudia. LHko 2. mailako irakaslea

6. Txikia zinenean, zer nolako garrantzia ematen zitzaien marrazketari? Eta nola irakasten zizuten Plastika ikasgaia? Zein eduki lantzen ziren?

Orain bezela. Narrasteta librean, zuzendua, lineala, kopiak egiten genituen (eredu bat jarraituz), teknika ezberdinetan lantzen ziren (carboncillo, ...)

18. irudia. LHko 1. mailako irakaslea

6. Txikia zinenean, zer nolako garrantzia ematen zitzaien marrazketari? Eta nola irakasten zizuten Plastika ikasgaia? Zein eduki lantzen ziren?

Plastikan artista bat gurekin irakasleak. Oinarrizko garatu izugarriko garrantzia ematen zuten, kaxa da, margerak, marra zuzenak, itzalak, koloreen konbinaketak, ...

19. irudia. LHko 6. mailako irakaslea

8. Ikasleren batek marrazkigintzarako gogoia erakusten ez badu, zerbait egiten duzu hori ekiditeko eta ikaslea motibatzeke?

Gustuko dituen gauzak identifikatu eta marrazten irakasten saiateren nait, ahaz duela ikus dezan. Horrela ere gogoia erakusten badu, eta nahiz motibatzen saiateren.

20. irudia. LHko 6. mailako irakaslea

8. Ikasleren batek marrazkigintzarako gogoia erakusten ez badu, zerbait egiten duzu hori ekiditeko eta ikaslea motibatzeke?

Animatu egiten dut, marrazteko aukera zein ideiak eskaintzen eta horrela behar bada, hasieran nire laguntza eskaintzen diot.

21. irudia. LHko 2. mailako irakaslea

8. Ikasleren batek marrazkigintzarako gogoia erakusten ez badu, zerbait egiten duzu hori ekiditeko eta ikaslea motibatzeke?

Eredu errezalet ematen dizkion, txarto egiteko beldur hori kentzeko. Askotan ez dakite zer edo nola egin. Zuzen gelditzen dira.

22. irudia. LHko 1. mailako irakaslea

8. Ikasleren batek marrazkigintzarako gogoia erakusten ez badu, zerbait egiten duzu hori ekiditeko eta ikaslea motibatzeke?

Beti baloratzen da egiten dutena. Marrazketa zuzenduta dagoenean erakusten dene egin behar da. Libre denean, orden, norberarene aurrerari gertatzen da. (Gogo gutxi, empikape. nah ...).

23. irudia. LHko 2. mailako irakaslea


8. Ikasleren batek marrazkigintzarako gogoia erakusten ez badu, zerbait egiten duzu hori ekiditeko eta ikaslea motibatuzeko?

Bere bere lebertuz. Normalean irakasle edo ikasleak  
loten laguntza eskertzen dute.


24. irudia. LHko 3. mailako irakaslea

V. eranskina. Ikasleen inkestengrafikoak


1. MAILAKO IKASLEAK




9. grafikoa. LHko 1. mailako ikasleak. "Marraztea duzu gustuko?"




10. grafikoa. LHko 1. mailako ikasleak. "Zergatik marrazten duzu"




11. grafikoa. LHko 1. mailako ikasleak. "Norbaitek marrazten irakatsi dizu"




12. grafikoa. LHko 1. mailako ikasleak. "Normalean zer marrazten duzu"




13. grafikoa. LHko 1. mailako ikasleak. "Non marrazten duzu gehienbat?"




14. grafikoa. LHko 1. mailako ikasleak. "Gehienbat non gustatzen zaizu marraztea?"




15. grafikoa. LHko 1. mailako ikasleak. "Ikastolan zaudenean, zein momentutan marrazten duzu?"



16. grafikoa. LHko 1. mailako ikasleak. "Gustatzen al zaizkizu egiten dituzun marrazkiak?"




17. grafikoa. LHko 1. mailako ikasleak. "Zer egiten duzu egindako marrazkiekin?"




18. grafikoa. LHko 1. mailako ikasleak. "Gustatuko al litzazuke marrazteko denbora gehiago izatea?"


**2. MAILAKO IKASLEAK**




19. grafikoa. LHko 2. mailako ikasleak. "Marraztea duzu gustuko?"




20. grafikoa. LHko 2. mailako ikasleak. "Zergatik marrazten duzu"




21. grafikoa. LHko 2. mailako ikasleak. "Norbaitek marrazten irakatsi dizu"




22. grafikoa. LHko 2. mailako ikasleak. "Normalean zer marrazten duzu"




23. grafikoa. LHko 2. mailako ikasleak. "Non marrazten duzu gehienbat?"




24. grafikoa. LHko 2. mailako ikasleak. "Gehienbat non gustatzen zaizu marraztea?"




25. grafikoa. LHko 2. mailako ikasleak. "Ikastolan zaudenean, zein momentutan marrazten duzu?"



26. grafikoa. LHko 2. mailako ikasleak. "Gustatzen al zaizkizu egiten dituzun marrazkiak?"




27. grafikoa. LHko 2. mailako ikasleak. "Zer egiten duzu egindako marrazkiekin?"




28. grafikoa. LHko 2. mailako ikasleak. "Gustatuko al litzazuke marrazteko denbora gehiago izatea?"


### 3. MAILAKO IKASLEAK




29. grafikoa. LHko 3. mailako ikasleak. "Marraztea duzu gustuko?"




30. grafikoa. LHko 3. mailako ikasleak. "Zergatik marrazten duzu?"




31. grafikoa. LHko 3. mailako ikasleak. "Norbaitek marrazten irakatsi dizu?"




32. grafikoa. LHko 3. mailako ikasleak. "Normalean zer marrazten duzu?"




33. grafikoa. LHko 3. mailako ikasleak. "Non marrazten duzu gehienbat?"



34. grafikoa. LHko 3. mailako ikasleak. "Gehienbat non gustatzen zaizu marraztea?"




35. grafikoa. LHko 3. mailako ikasleak. "Ikastolan zaudenean, zein momentutan marrazten duzu?"




36. grafikoa. LHko 3. mailako ikasleak. "Gustatzen al zaizkizu egiten dituzun marrazkiak?"






37. grafikoa. LHko 3. mailako ikasleak. “Zer egiten duzu egindako marrazkiekin?”




38. grafikoa. LHko 3. mailako ikasleak. “Gustatuko al litzaizuke marrazteko denbora gehiago izatea?”


**4. MAILAKO IKASLEAK**




39. grafikoa. LHko 4. mailako ikasleak. “Marraztea duzu gustuko?”




40. grafikoa. LHko 4. mailako ikasleak. “Zergatik marrazten duzu”




41. grafikoa. LHko 4. mailako ikasleak. “Norbaitek marrazten irakatsi dizu”




42. grafikoa. LHko 4. mailako ikasleak. “Normalean zer marrazten duzu”




43. grafikoa. LHko 4. mailako ikasleak. "Non marrazten duzu gehienbat?"




44. grafikoa. LHko 4. mailako ikasleak. "Gehienbat non gustatzen zaizu marraztea?"




45. grafikoa. LHko 4. mailako ikasleak. "Ikastolan zaudenean, zein momentutan marrazten duzu?"



46. grafikoa. LHko 4. mailako ikasleak. "Gustatzen al zaizkizu egiten dituzun marrazkiak?"




47. grafikoa. LHko 4. mailako ikasleak. "Zer egiten duzu egindako marrazkiekin?"




48. grafikoa. LHko 4. mailako ikasleak. "Gustatuko al litzaizuke marrazteko denbora gehiago izatea?"


**5. MAILAKO IKASLEAK**




49. grafikoa. LHko 5. mailako ikasleak. "Marraztea duzu gustuko?"




50. grafikoa. LHko 5. mailako ikasleak. "Zergatik marrazten duzu"




51. grafikoa. LHko 5. mailako ikasleak. "Norbaitek marrazten irakatsi dizu"




52. grafikoa. LHko 5. mailako ikasleak. "Normalean zer marrazten duzu"




53. grafikoa. LHko 5. mailako ikasleak. "Non marrazten duzu gehienbat?"




54. grafikoa. LHko 5. mailako ikasleak. "Gehienbat non gustatzen zaizu marraztea?"




55. grafikoa. LHko 5. mailako ikasleak. "Ikastolan zaudenean, zein momentutan marrazten duzu?"



56. grafikoa. LHko 5. mailako ikasleak. "Gustatzen al zaizkizu egiten dituzun marrazkiak?"




57. grafikoa. LHko 5. mailako ikasleak. "Zer egiten duzu egindako marrazkiekin?"




58. grafikoa. LHko 5. mailako ikasleak. "Gustatuko al litzaizuke marrazteko denbora gehiago izatea?"


**6. MAILAKO IKASLEAK**




59. grafikoa. LHko 6. mailako ikasleak. "Marraztea duzu gustuko?"




60. grafikoa. LHko 6. mailako ikasleak. "Zergatik marrazten duzu?"




61. grafikoa. LHko 6. mailako ikasleak. "Norbaitek marrazten irakatsi dizu"




62. grafikoa. LHko 6. mailako ikasleak. "Normalean zer marrazten duzu"




63. grafikoa. LHko 6. mailako ikasleak. "Non marrazten duzu gehienbat?"




64. grafikoa. LHko 6. mailako ikasleak. "Gehienbat non gustatzen zaizu marraztea?"




65. grafikoa. LHko 6. mailako ikasleak. "Ikastolan zaudenean, zein momentutan marrazten duzu?"



66. grafikoa. LHko 6. mailako ikasleak. "Gustatzen al zaizkizu egiten dituzun marrazkiak?"



67. grafikoa. LHko 6. mailako ikasleak. “Zer egiten duzu egindako marrazkiekin?”



68. grafikoa. LHko 6. mailako ikasleak. “Gustatuko al litzaizuke marrazteko denbora gehiago izatea?”

• **Ikasleen hitzak**

Maila	Galdera	Erantzuna
<b>1. maila</b>	<u>8. galdera:</u> <i>gehienbat non gustatzen zaizu marraztea? Zergatik?</i>	<p><b>Ikastolan:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Hemen arkatzez, errotulkiz, margoz,... margoztu ahal dudalako.”</li> <li>- “Lagunek marrazten lagundu ahal didatelako.”</li> <li>- “Lagunekin nagoelako”.</li> <li>- “Denon artean marrazkiak egiten ditugulako.”</li> <li>- “Marrazkiak asmatzen ditugulako.”</li> </ul> <p><b>Etxean:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Lasaiago nagoelako.”</li> <li>- “Amarekin nagoelako.”</li> <li>- “Ez didatelako molestatzen.”</li> <li>- “Argizariak ditudalako.”</li> <li>- “Marrazten laguntzen didatelako.”</li> </ul>
<b>2. maila</b>	<u>8. galdera:</u> <i>gehienbat non gustatzen zaizu marraztea? Zergatik?</i>	<p><b>Ikastolan:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Gauza dibertigarriagoak egiten dituzulako.”</li> <li>- “Nire lagunekin nagoelako.”</li> <li>- “Jendeak nire marrazkiak ikusten dituelako.”</li> <li>- “Margolaritzara noalako.”</li> </ul> <p><b>Etxean:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Margo mota gehiago ditudalako.”</li> <li>- “Nire gurasoekin nagoelako.”</li> </ul>

		<ul style="list-style-type: none"> <li>- “Lasaitasun gehiago dudalako.”</li> <li>- “Nahi dudana margotu ahal dudalako.”</li> <li>- “Seguru sentitzen naizelako.”</li> </ul>
<b>3. maila</b>	<u>1. galdera:</u> <i>marraztea duzu gustuko?</i>	<p><b>Batzuetan:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Beti egiten badut aspertzen naizelako.”</li> <li>- “Batzuetan ez dakidalako zer marraztu.”</li> <li>- “Txarto margozten dudalako.”</li> <li>- “Denbora ez dudalako.”</li> <li>- “Batzuetan imajinazioa ez dudalako.”</li> </ul>
	<u>8. galdera:</u> <i>gehienbat non gustatzen zaizu marraztea? Zergatik?</i>	<p><b>Ikastolan:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Nire lagunekin nagoelako.”</li> <li>- “Lasaitasuna dagoelako.”</li> </ul> <p><b>Etxean:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Oso lasai nagoelako.”</li> <li>- “Ideia asko ateratzen zaizkidalako”.</li> <li>- “Ez didalako inor ikusten.”</li> </ul>
<b>4. maila</b>	<u>1. galdera:</u> <i>marraztea duzu gustuko?</i>	<p><b>Batzuetan:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Beste gauza batzuk egitea nahiago dut.”</li> <li>- “Batzuetan erlaxatzen naizelako.”</li> <li>- “Batzuetan aspertzen nauelako.”</li> <li>- “Urduri nagoenean batzuetan lasaitzen didalako.”</li> </ul> <p><b>Ez:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Margozten oso txarra naizelako.”</li> <li>- “Nire marrazkiak ez zaizkidalako gustatzen.”</li> <li>- “Ez zaidalako gustatzen eta aspertu egiten didalako.”</li> </ul>
	<u>8. galdera:</u> <i>gehienbat non gustatzen zaizu marraztea?</i>	<p><b>Ikastolan:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Lagunekin marrazten dudalako.”</li> <li>- “Inspirazioa ematen didalako.”</li> <li>- “Laguntzen didatelako.”</li> <li>- “Marrazki gehiago etortzen zaizkidalako burura.”</li> </ul>

		<p><b>Etxean:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Errezagoa delako eta lasai zaudelako.”</li> <li>- “Oso lasai nagoelako.”</li> <li>- “Zarata ez dagoelako.”</li> <li>- “Nire marrazkia ez duelako inork ikusten.”</li> <li>- “Hobeto sentitzen naizelako.”</li> <li>- “Denbora gehiago dudalako.”</li> </ul> <p><b>Kalean:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Ohituta nagoelako.”</li> <li>- “Ikusten ditudan gauzak marrazten ditudalako.”</li> </ul>
<p><b>5. maila</b></p>	<p><u>1. galdera:</u> <i>marraztea duzu gustuko?</i></p>	<p><b>Batzuetan:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Ez dut oso ondo marrazten. Baina liburu baten portada kopiatzen edo edozer marrazki kopiatzen ona naiz.”</li> <li>- “Aspertzen naizenean, batzuetan jolastu beharrean marraztea nahiago dut gauzak espresatzen ditudalako.”</li> <li>- “Marrazten hasten banaiz bi orduko marrazkiak egiten ditut eta lagunekin jolastea gehiago gustatzen zait.”</li> <li>- “Asko kostatzen zaidalako zer margoztuko dudan aukeratzea.”</li> </ul> <p><b>Ez:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Inoiz ez dakidalako zer marraztu.”</li> <li>- “Oso aspergarria da niretzako.”</li> <li>- “Lagunekin jolastea nahiago dudalako.”</li> </ul>
	<p><u>6. galdera:</u> <i>normalean zer marrazten duzu?</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- “Liburuen portadak kopiatu.”</li> <li>- “Animaliak.”</li> <li>- “Futbola.”</li> <li>- “Zelaiak.”</li> <li>- “Landareak.”</li> <li>- “Paisaiak.”</li> <li>- “Munstroak.”</li> <li>- “Lekuak.”</li> <li>- “Segun eta zeintzuk diren nire emozioak.”</li> </ul>



	<p>8. <u>galdera:</u> <i>gehienbat non gustatzen zaizu marraztea?</i></p>	<p><b>Ikastolan:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Nire lagunekin marrazten dudalako.”</li> <li>- “Lagunekin batera marrazteko.”</li> <li>- “Inspirazioa dudalako.”</li> </ul> <p><b>Etxean:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Libre sentitzen naizelako eta inork ez duelako nire marrazkia ikusten.”</li> <li>- “Margo gehiago ditudalako.”</li> <li>- “Kontzentratuta nagoelako eta isiltasuna dagoelako.”</li> <li>- “Pazientzia gehiago dudalako.”</li> <li>- “Batuetan txarto marrazten dudala pentsatzen dudalako.”</li> <li>- “Musikarekin erlaxatuta hobeto marrazten dudalako.”</li> <li>- “Denbora osoa marrazten egon ahal naizelako.”</li> </ul>
	<p>10. <u>galdera:</u> <i>gustatzen al zaizkizu egiten dituzun marrazkiak? Zergatik?</i></p>	<p><b>Bai:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Normalean ondo ateratzen zaizkidalako eta txarto egiten badut nire erroreeraz ikasten dut.”</li> <li>- “Nire ustez, marrazki bat ez dagoelako txarto zuk egin baduzu, zure sormena edo estiloa delako.”</li> <li>- “Etxean serioago egiten ditut baina ikastolan zaratagatik zentzurik gabe egiten ditut.”</li> <li>- “Ahalegindu egiten naizelako.”</li> <li>- “Nik asmatzen ditudalako.”</li> <li>- “Saiatzen naizelako eta ez badut lortzen lotu arte saiatzen naiz.”</li> </ul> <p><b>Batuetan:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Ez dudalako ondo marrazten.”</li> <li>- “Beti ez zaizkit ondo ateratzen.”</li> <li>- “Batuetan jendeak nire marrazkietaz barre egiten dutelako.”</li> </ul> <p><b>Ez:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Txarto ateratzen zaizkidalako.”</li> </ul>

<p><b>6.maila</b></p>	<p><u>1. galdera:</u> <i>marraztea duzu gustuko?</i></p>	<p>- “Ez dakit marrazten.”</p> <p><b>Bai:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Marrazteak erlaxatzen nauelako.”</li> <li>- “Marrazten dudanean beste unibertso batean sartzen naizela iruditzen du. Bakarrik pentsatzen dut zer marraztuko dudan.”</li> <li>- “Txikitatik marrazten dudalako, nire pazioa delako.”</li> </ul> <p><b>Batzuetan:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Jada ez dudalako ia denborarik kanpoko ekintzak eta etxerako lanen artean.”</li> <li>- “Aspergarria iruditzen zait eta denbora galtzea.”</li> <li>- “Musikarekin marraztea gustatzen zait, musika gabe aspergarria da.”</li> <li>- “Batzuetan nire marrazkiak ez ditudalako gustuko.”</li> </ul> <p><b>Ez:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Denbora galtze bat iruditzen zaidalako eta gauza azkarrak matematikak bezalakoak baina pentsatu beharrekoak gustatzen zaizkidalako niri.”</li> <li>- “Oso aspergarria delako.”</li> </ul>
	<p><u>8. galdera:</u> <i>gehienbat non gustatzen zaizu marraztea?</i></p>	<p><b>Ikastolan:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Batzuetan jarduerak egiteko marraztu behar dugulako eta lagunaren artean marrazkiak ikusten ditugulako.”</li> <li>- “Etxean eta kalean beste gauza batzuk egiten ditudalako.”</li> <li>- “Lagunekin nagoelako.”</li> </ul> <p><b>Etxean:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Ikastolan ez dudalako denborarik.”</li> <li>- “Lasaitasun gehiago dagoelako.”</li> <li>- “Batzuetan musika jartzen dudalako.”</li> <li>- “Bakarrik nagoelako.”</li> <li>- “Gehiago inspiratzen naizelako.”</li> </ul>

		<ul style="list-style-type: none"> <li>- “Denbora dudalako nahi dudana marrazteko.”</li> <li>- “Prisarik ez dagoelako.”</li> <li>- ”Seguruago sentitzen naizelako.”</li> </ul>
	<p><u>10. galdera:</u> <i>gustatzen al zaizkizu egiten dituzun marrazkiak? Zergatik?</i></p>	<p><b>Bai:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Marrazki bat ez dagoelako txarto ezta ondo, zuk nahi duzun bezala marraztu ahal duzu.”</li> <li>- “Geroz eta hobeto egiten saiatzen naizelako.”</li> <li>- “Nire marrazkiak direlako, eta txarto egiten ditudanean barrez hasten naiz.”</li> <li>- “Niri berdin zait txarto edo ondo ateratzen bazaizkit, pozik sentitzen naiz nire marrazkiekin.”</li> <li>- “Nik egiten dudalako eta ez zait inporta besteek esaten dutena.”</li> <li>- “Nire marrazkiekin asko ikasi ahal dudalako.”</li> </ul> <p><b>Batzuetan:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Txarto marrazten dudalako.”</li> <li>- “Gauza bat txarto egiten badut asko estresatzen naizelako.”</li> </ul> <p><b>Ez:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Marrazten ez dakidalako.”</li> <li>- “Derrigortuta nagoelako marrazkiak egitera.”</li> <li>- “Oso itsusiak direlako.”</li> </ul>